

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko martxoaren 10a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00448. Galdera, Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzeko lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00449. Galdera, Israelgo Estatuarekin harremanak dituzten enpresei buruzko dokumentazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00450. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2023an navarra.com eta eldiario.es hedabide digitaletan publizitate instituzionala jartzera bideratutako zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00451. Galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeko azterlanetik egin den eta egiteke dagoen lanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00452. Galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeko azterlana egiteko Osasun Departamentuak prestatutako kronogramari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00453. Galdera, Muesko presa erromatarreko aztarnategia Kultur Intereseko Ondasun izendatzea ebatzi eta bukatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00454. Galdera, unibertsitate-ikasketetarako beka eta laguntzetarako 2023ko aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00455. Galdera, Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa iraungitzen den datari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00456. Galdera, Pirinioetako nekazaritza-elikagaietako aukerak direla-eta INTIAk 2021ean egindako azterlanaren ondorioak gogoan hartuta egin diren ekintzei edo hartu diren ekimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00457. Galdera, eskola-jantokirako bekei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00458. Galdera, 2015eko urriaren 29an onetsi zen uren aprobetxamendurako emakidaren ezaugarriak aldatzeko eskaria zertan den jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-24/PES-00459. Galdera, bingo-aretoetako eta joko-areto edo -lokaletako ordutegia ezberdina izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00460. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko aldera Europako Inbertsio Bankuarekin egindako bilereari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- 11-24/PES-00461. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00462. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko fasearen handitzearen azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00463. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00464. Galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-24/PES-00465. Galdera, Osasun Karpeta Pertsonaleko iradokizunen/erreklamazioen atalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-24/PES-00466. Galdera, 2023ko abenduko aginte-koadroko "Zentroz zentro hobetzeko arloak" atalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00467. Galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloen" motei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-24/PES-00468 Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean jasotzen diren zerbitzu-kartak abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 11-24/PES-00469. Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-24/PES-00470. Galdera, Bruselako bulegoetako lanpostu batean euskara baloratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-24/PES-00471. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetz-hitarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, berritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 11-24/PES-00472. Galdera, Zizur Nagusiko ikastetxeetarako proiektatutako sukaldeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 11-24/PES-00473. Galdera, ahozko galderak geroratzeko eta beste kontseilari bati esleitzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 11-24/PES-00474. Galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen helburuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 11-24/PES-00475. Galdera, Bixente Nazabal Sunsundegui enpresako kontseilari hautatu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- 11-24/PES-00476. Galdera, Iruñean Maristen etxadian babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- 11-24/PES-00477. Galdera, ETBren emanaldiak zaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- 11-24/PES-00478. Galdera, Osasun Departamentuaren azpiegituren eta obren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00448. Galdera, Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzeko lizitazioari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultza tzeko lizitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 8ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañeru andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko azaroaren 5eko 202407577 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– sozietateak Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzeko egindako lizitazioari buruz (11-24/PES-448). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Galdera horren harira, INIk galderaren testuan agertzen diren gaiei erantzuteko emandako informazioa helarazten da.

1. Zer jarduketa egingen dira?
2. Berriz lizitatuko al da proiektua?

3. Bazter utziko al da proiektua?

4. Gogoan al duzue alternatibarik?

2024ko urriaren 22an izandako bileran, Instituto Navarro de Inversiones SL sozietatearen Administrazio Kontseiluak aztertu zuen zer arrazoiengatik geratu den esleitu gabe Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzeko ekintza planaren diagnostikoa eta ebaluazioaren jarraipena egiteko laguntza teknikoa kontratatzekeko lizitazioa. Estatutu sozialek jasotzen dituzten orientabide estrategikoak definitu ahal izateko xedez, Administrazio Kontseiluak egokitzat jo du prozedura negoziatu berri bat egiteko aukera aztertzea.

5. Edozein kasutan, zein izanen lirateke epeak?

Behin lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatuaren aplikazioaren analisia egin ondoren, eta, azkenean, lizitazioa gauzatuz gero, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean prozedura horretarako arautzen diren gutxieneko konkurrentzia epeak aplikatuko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez. Jakin, halaber, bidalitako informazioa konfidentziala dela.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00449. Galdera, Israelgo Estatuarekin harremanak dituzten enpresei buruzko dokumentazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Israelgo Estatuarekin harremanak dituzten enpresei buruzko dokumentazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 8ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroak Israelekin dituen harreman enpresarialeiei eta komertzialei buruz (11-24/PES-00449). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

1. Nafarroako Gobernuak ba al du txosten, zerrenda, fitxategi edo bestelako dokumentaziorik


zehazten duena Nafarroan egoitza soziala eta/edo presentzia duten zer enpresak dauzkaten enpresa-harremanak eta/edo harreman komertzialak Israelgo Estatuan edo Israelgo Estatuarekin?

Nafarroako Gobernuak ez dauka zerrendarik zehazten duena Nafarroan egoitza soziala eta/edo presentzia duten zer enpresak dauzkaten enpresa-harremanak eta/edo harreman komertzialak Israelgo Estatuan edo Israelgo Estatuarekin. Datu horiek aduanetatik eskuratzen dira, eta aduanetako datuak anonimoak dira, ez baitira argitaratzen.

Edonola ere, Israelerako esportazioen taula helarazten da, non zehazten den zeintzuk diren esportatutako produktuaren mota eta kantidadea nahiz balioaren bilakaera.

Taulak xxxn kontsultatzen ahal dira, eta horiek ikusita jakiten ahal da 2023an Nafarroako 121 enpresak egin zituztela esportazioak Israelera, eta horietatik 47k erregularki egiten dute (lau urte edo gehiago jarraian).

Edonola ere, esportazioei buruzko informazio guztia kontsultatzen ahal duzu esteka honetan: <https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/exp-ortaciones-en-navarra>



Año: 2024		Último mes disponible: Ago/2024						
Evolución del Nº Exportadores (*)								
Exportación > 0 €	2019	2020	2021	2022	2023	%2023/Total	Ene-Ago/2024	%2024/Total
Exportadores TOTALES	116	114	132	143	121	100,0	102	100,0
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	7,4	-1,7	15,8	8,3	-17,1		-6,4	
Exportación Total (Miles Euros)	29.672,3	38.399,2	36.618,9	39.423,8	29.758,3	100,0	25.462,3	100,0
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	-33,7	29,4	-4,6	7,7	-24,0		7,8	
Exportadores Inician / Reinician actividad exportadora (1)	46	42	58	59	38	31,4		
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	35,3	-8,7	38,1	1,7	-35,6			
Exportación Total (Miles Euros)	3.431,1	1.894,9	1.900,5	1.164,4	946,5	3,2		
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	7,2	-44,8	0,3	-38,7	-18,7			
Exportadores Interrumpen actividad exportadora (2)	38	44	40	48	60	49,6		
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	-17,4	15,8	-9,1	20,0	25,0			
Exportación Total (Miles Euros)(2)	13.243,1	750,9	4.365,1	1.989,6	6.395,9	21,5		
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	1.521,1	-94,3	481,3	-54,4	221,5			
Exportadores REGULARES (3)	50	50	52	55	47	38,8	53	52,0
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	4,2	0	4,0	5,8	-14,5		15,2	
Exportación Total (Miles Euros)	25.744,5	30.079,8	29.913,0	34.929,1	22.121,7	74,3	22.142,5	87,0
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	-34,0	16,8	-0,6	16,8	-36,7		15,4	
Exportadores Inician / Reinician actividad exportadora REGULARES (4)	6	7	8	8	S.E.	2,5		
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	-45,5	16,7	14,3	0	S.E.			
Exportación Total (Miles Euros)	476,1	108,5	1.317,0	20.792,0	63,1	0,2		
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	-76,9	-77,2	1.113,9	1.478,7	-99,7			
Exportadores Interrumpen actividad exportadora REGULARES (5)	S.E.	7	6	5	11	9,1		
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	S.E.	75,0	-14,3	-16,7	120,0			
Exportación Total (Miles Euros)(5)	11.388,5	207,8	2.876,6	45,1	4.257,7	14,3		
% Incr. frente mismo periodo año anterior(D)	2.710,8	-98,2	1.284,6	-98,4	9.331,3			

2. Baldin eta Nafarroako Gobernuak badu txosten, zerrenda, fitxategi edo bestelako dokumentaziorik zehazten duena Nafarroan egoitza soziala eta/edo presentzia duten zer enpresak dauzkaten enpresa-harremanak eta/edo harreman komertzialak Israelgo Estatuan edo Israelgo Estatuarekin, Nafarroako Gobernuak ba al du enpresa-harreman eta/edo harreman komertzial horiek zer produktu edo zerbitzutan oinarritzen diren jakiteko informaziorik?

Ez dago erantzuterik. Ikus 1. galderari emandako erantzuna.

Baldin eta Nafarroako Gobernuak badu txosten, zerrenda, fitxategi edo bestelako dokumentaziorik zehazten duena Nafarroan egoitza soziala eta/edo presentzia duten zer enpresak dauzkaten enpresa-

harremanak eta/edo harreman komertzialak Israelgo Estatuan edo Israelgo Estatuarekin, Gobernuak ba al daki ea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioek inolako enpresa-harremanik, harreman komertzialik edo administratiborik duen enpresa horiekin?

Ez dago erantzuterik. Ikus 1. galderari emandako erantzuna.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 22an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00450. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2023an navarra.com eta eldiario.es hedabide digitaletan publizitate instituzionala jartzera bideratutako zenbatekoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Gobernuak 2023an navarra.com eta eldiario.es hedabide digitaletan publizitate instituzionala jartzera bideratutako zenbatekoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 8ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00450); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Zerk justifikatzen du Nafarroako Gobernuak, Publizitate Instituzionalari buruzko Oroitidazkiaren

arabera, 2023an 7.782,72 € bideratu izana navarra.com hedabide digitalari eta antzeko zenbateko bat, 7.622,11 €, elDiario.es hedabide digitalari, nahiz eta, CIESen arabera, hedabide baten eta bestearen irakurle-kopurua nahiko ezberdina izan eta bigarrenarena baino handiagoa izan lehenbizikoarena?

Hedabide bakoitzean inbertitzeko kuota kalkulatzeko erabiltzen den irakurle datua eguneko irakurleena da. Kasu zehatz honetan, CIESek 14.000 pertsonako eguneko irakurle kopurua eman zion 2022an navarra.com hedabideari, eta eldiario.es hedabideari, berriz, 13.000 pertsonakoa. Beraz, hedabide bietako inbertsio kuota proportzionatua izan zen, indarreko araudiaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00451. Galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzen azterlanetik egin den eta egiteke dagoen lanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzen azterlanetik egin den eta egiteke dagoen lanari buruz egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 8ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak informazio eskaera egin du: “Zer lan egin da jada Osasunbideko lanpostuen lan-baldintzak (arriskugarritasuna, nekagarritasuna eta arriskuak) ebaluatzen azterketari dagokionez, eta zer lan geratzen da egiteko?” (11-24/PES-00451). Hona hemen Osasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua Laneko Arriskuen Prebentziorako Planean oinarritzen da lan baldintzen ebaluazioa ezartzeko. Plan hori, ondorio guztietarako, Lan arriskuen prebentzioari buruzko Legean (azaroaren 8ko 31/1995 Legea) ezartzen den prebentzio planaren baliokidea da.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jardura, zerbitzu eta prozesu guztiei aplikatuko zaie. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile guztiek nahitaez bete behar dute, bai eta enpresa kontratistek eta jardura horietan edozein neurritan parte hartzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikok ere.

Planaren inguruko kontsulta egin zaie langileen ordezkariari alde aurretik, eta horren kontuak eman zaizkio segurtasun eta osasuneko batzordeari —hiru hilean behin biltzen da—. Batzorde horietan, abenduan, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak aurreikusitako arriskuen ebaluazioen berrikuspenen plangintza aurkezten du, onesteko, eta martxoan, berriz, aurreko urtean egindakoaren kontu ematen du.

Egindako ekintzen deskribapena

Arriskuen ebaluazioa funtsezkoa da prebentzio jardueraren plangintza egokia diseinatu ahal izateko, Laneko Arriskuen Prebentziorako Politikan proposatutako helburuak lortu ahal izateko.

Arriskuen ebaluaziotik abiatuta, Osasunbideko jardura eta instalazioetatik eratorritako eta saihestu ezin izan diren arriskuak prebenitzera eta kontrolatzera bideratutako gainerako jarduerak konfiguratzeko dira.

Halaber, ebaluazioa baliagarria da arrisku berriak sortu eta lan baldintzak alda ditzaketen aldaketak identifikatu eta kontrolatu ahal izateko. Arriskuen ebaluazioa egiteko ezarritako metodologiak eta prozesuak prozedura bati jarraitzen diote. Une honetan, ebaluatuta daude Osasunbideko lanpostu guztiak.

A) Arriskuak ebaluatzen prozedura

Arrisku mailetan sailkatzen dira arriskuak (hutsaletik onartezinera), horiek gertatzeko probabilitatearen eta, gertatuz gero, kalteen larritasunaren arabera.

Prebentzio neurriak eta ekintza zuzentzaileak ezartzen ditu arriskugarritasuna saihesteko edo, bestela, minimizatzen, bai eta horiek gauzatzeaz nor arduratzen ere. Neurri eta ekintza horien artean daude, adibidez: instalazioak hobetzea, ekipak berritzea, ahaleginak minimizatzen bitarteko lagungarriak proposatzea, antolaketa neurriak, laneko prozedurak eta jarraibideak, norbera babesteko ekipamenduak, seinaleak, etab.

Ebaluatutako arriskuen arabera, osasunaren zaintza espezifiko eta informazio eta prestakuntza ekintzak proposatzen dira, profesionalek ingurune seguruak sustatzen lagun dezaten.

B. Arriskuen ebaluazio jarraitua

Aldizka, lau urtean behin, lanpostu guztien arriskuen ebaluazioa berrikusten da. Pandemiak atzeratu egin du berrikuspen horren aldizkakotasuna, eta zenbait unitate eta zerbitzu (jada ebaluatutako) berrikuspenaren zain daude. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko talde teknikoaren ahaleginari esker, Osasunbidearen prebentzio planarekiko konpromiso hori eguneratzea lortzen ari da.

Aldizkakotasun ez da beti lau urtekoa. Aldizkakotasun horretatik kanpo gelditzen dira arrisku higieniko espezifiko batzuk (anestesikoak, erradiazio ez-ionizatzailak, formola eta beste batzuk), horiek ebaluatzeko ingurumen neurketak egin behar direlako. Betetzeko atzerapenik gabe. Ebaluazio horietarako prozedura espezifiko bat dago, eta aldizkakotasuna ebaluazio horien emaitzetara egokitzen da.

Era berean, Osasunbideko zentroetako autobabes planak berrikusten eta eguneratzen laguntzen da.

C. Eskariaren araberako arriskuen ebaluazioa

Aldizkako berrikuspen programatuaz gain, arrisku berriak edo ebaluatu gabeak detektatzeko barne komunikazioko mekanismo bat dago, eskariaren araberakoa, bai eta gertatutako intzidentek jakinarazteko bide bat ere.

Eskariaren araberako jarduera hori egunean behin berrikusten da, eta irizpide teknikoaren arabera planifikatzen da. Horri esker, lehentasuna ematen zaio programatutako arriskuen ebaluazioaren berrikuspenaren aldizkakotasuna laburtzeari, behar diren ekintzetarako lanpostuetara etengabeko bisitak eginez.

Eskariaren araberako arriskuen ebaluazioak berrikusteko beste iturri bat "haurdunaldiko arrisku prestazioaren" eskaerak dira. Haurdunaldi jakinazpen bakoitzarekin (gutxi gorabehera 400 urtean), berrikusi egiten da haurdunaldirako baldintzen arriskuen ebaluazio espezifikoak.

Haurdunaldiko arriskuak kudeatzeko prozedura berri bat adostu eta onetsi da.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak, gainera, Osasunbideko zentroetako autobabes planak berrikusten eta eguneratzen laguntzen du.

Emaitzak eta lorpenak

Ezarritako neurri horiei esker, hobeto ezagutzen dira lanpostuak, horien inguruneak eta baldintzak, eta horrek prebentzio eta zuzenketa proposamen espezifikoagoak egitea ahalbidetzen du.

Kalteen berri gehiagotan ematea lortu da —berziki, profesionalak jasaten ari ziren erasoen berri oso gutxitan ematearen harira—, aurrera egin da biosegurtasunean eta norbera babesteko ekipamenduen erabilera egokiaren garrantziari buruzko sentsibilizazioan, etab.

Adibidez, 2023an, zerbitzuaren arlo teknikoan hau egin da:

– Erregistratutako 1.606 ezbehar intzidenteen azterketa

- % 40 erasoak (727 jakinarazi ziren 2023an)

- % 18 arrisku biologikoko istripuak

- % 10 nahasmendu muskulu-eskeletikoak

– Honako agente kimiko hauei dagokienez lan baldintzak kontrolatzeko prozeduratik eratorritako 186 ingurumen neurketa, eta zarataren 10 ingurumen neurketa:

- Formaldehidoa

- Xilenoa

- Metanola

- Etileno oxidoa

- Hidrogeno peroxidoa

- Gas anestesiokoak

– Osasunbideko unitate edo zerbitzu desberdinen 54 arrisku ebaluazio

– Hauekin lotutako 38 jarduera: erosketa prozedura, erosketetarako aholkularitza, material lehiaketen baldintza agiriak egiten parte hartzea, norbera babesteko ekipamenduak (NBE) edo biosegurtasuneko materialak kodetzeko proposamenak egitea eta produktu kimikoen segurtasundatuen fitxak egitea

– Enpresa jardueraren koordinazioaren arloko 25 lankidetzak

– Obra prozedurarekin lotutako 11 jarduera

– Eskariaren araberako 810 jarduera, Osasunbideko zentroetako arduradunek, prebentzio ordezkariak, langileek edo Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak berak eskatuta

– 31 ikastaro eman dira, eta 144 prestakuntza ekintza. Guztira, 1.888 pertsonak jaso dute prestakuntza.

– Prebentzio batzordeen urteko bilera guztiak egin dira, baita hiru hilean behingo segurtasun eta osasuneko batzordeenak eta lantalde teknikoarenak ere, gainkargari heltzeko

Etengabeko hobekuntzarako konpromisoa

Beharrezkoa da ingurune seguruak sustatzen eta profesionalen zaintzan eta ongizatean lan egiten jarraitzea, onetsi berri den Osasunbidea Humanizatzeko Estrategian jasotzen den bezala. Gainera, mugikortasun seguru eta jasangarriko planarekin aurrera egitean jarriko da arreta, baja medikoa behar izan zuten ezbeharren tasa (1.606 intzidenteen % 19) mugikortasunarekin lotuta baitago gehienbat.

Prebentzio zerbitzuak etengabeko trebakuntzari eusteko konpromisoa duela bermatzen du, bai eta ingurune seguru, inklusibo eta osasungarriak sustatzeko konpromisoa ere.

Konklusioa

Lan horregatik, eskerrak eman behar zaizkie Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko talde teknikari eta segurtasun eta osasuneko batzordeko kide diren prebentzio ordezkari.

6. Eranskinak

Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana eta segurtasun eta osasuneko batzordeak onetsitako prozedurak:

<https://gcsalud.admon-cfnavarra.es/Salud04/SSCC/PRL/PlanPRL/Paginas/default.aspx>

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren memoriak

<https://gcsalud.admon-cfnavarra.es/Salud04/SSCC/EspaciosColaboracion/DPR/PlanPrevencion/Forms/AllItems.aspx>

Segurtasun eta osasuneko batzordeko aktak:

<https://gcsalud.admon-cfnavarra.es/Salud04/SSCC/EspaciosColaboracion/DPR/ComiteSeguridad.aspx>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

11-24/PES-00452. Galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeko azterlana egiteko Osasun Departamentuak prestatutako kronogramari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeko azterlana egiteko Osasun Departamentuak prestatutako kronogramari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 8ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikiriko Leticia San Martín Rodríguez foru parlamentari andreak honako informazio eskaera hau egin du: “zer kronograma du planifikatuta Osasun Departamentuak, gaurtik amaitu arte, Osasunbideko lanpostuen lan baldintzak (arriskugarritasuna, nekagarritasuna eta arriskuak) ebaluatzeko azterlanari dagokionez?” (11-24/PES-00452). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko kontseilariak horri buruz eman duen informazioa:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lan baldintzen ebaluazioa Laneko Arriskuen Prebentziorako Planean oinarrituta ezartzen du. Plan hori, ondorio guztietarako, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legean (azaroaren 8ko 31/1995 Legea) ezartzen den Prebentzio Planaren baliokidea da.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jarduerara, zerbitzu eta prozesu guztiei aplikatzen zaie. Nahitaez bete behar dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile guztiek, enpresa kontratistek eta jarduera horietan edozein neurritan parte hartzen duen pertsona fisiko edo juridiko orok.

Plana langileen ordezkariak kontsultatzen zaie alde zuzenetik, eta horren kontuak ematen dira hiru hilean behin biltzen den segurtasun eta osasun batzordean. Batzorde horietan, abendu bakoitzean, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak aurreikusitako arriskuen ebaluazioen berrikuspenen plangintza aurkezten du onespina emateko, eta martxo bakoitzean aurreko urtean egindakoaren berri ematen da.

Plangintza arriskuen ebaluazio programatuaren berrikuspenetik eratorritik da, eta garapena aztertzeak honako hauek jasotzen ditugu:

Programatutako arriskuen ebaluazioaren berrikuspena

Lanpostu guztiak ebaluatuta daudela kontuan hartuta, lau urtean behin berrikusi behar dira, eta lanpostu berrien hasierako ebaluazioa ere egin behar da. Horrela, unitate edo zerbitzu bakoitza 2025, 2026, 2027 edo 2028an berrikusteko planifikatuta dago. Hala ere, aldizkakotasuna ez da beti lau urtean behingoa. Arrisku higieniko espezifikoak daudenean (anestesikoak, erradiazio ez-ionizatzaileak, formola eta beste batzuk), ingurumen neurketak egin behar dira, ebaluazioaren aldizkakotasunetik kanpo. Berriazko prozedura bat dago ebaluazio horietarako, eta aldizkakotasuna horien emaitzetara egokitzen da.

Arriskuen ebaluazioa eskaeraren arabera

Zerbitzuko talde teknikoak egunean berrikusten du gorabehera, baja eragin duen edo eragin ez duen istripu edo arrisku berrien edo ebaluatu gabeen detekzioaren barne komunikazio oro, eta adituen irizpidearen arabera planifikatzearen bidez artatzen du; horri esker, lehentasuna ematen zaio programatutako arriskuen ebaluazioaren berrikuspenaren aldizkakotasuna laburtzeari, lanpostueta- ra bisitak eginez behar diren ekintzak ezartzeko.

Obrek eta aldaketek beharrezko egiten dute Osasunbideko zentroetako Autobabes Planak eguneratzea.

“Haurdunaldi arriskutsuagatik prestazio” (gutxi gorabehera 400 urtean) bakoitzak egoera berezi horretarako arriskuen ebaluazio espezifikoaren berrikuspena sortzen du. Haurdunaldiko arriskuak kudeatzeko prozedura berri bat adostu eta onartu da.

Plangintza

Prebentzio Planarekiko konpromisoa betez, urtero eguneratzen eta onartzen dira laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko helburuak.

Arriskuen ebaluazioen emaitzetatik eratorritako aldaketak egokitzeko plangintza, urteko berrespenaren zain dagoena, honako hau da: Etengabe hobetzeko konpromisoa

Laneko arriskuen prebentzioa Osasunbidean hobeto txertatzeko, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

<i>Adierazleen deskribapena</i>	<i>Aurreikusitakoa</i>
<i>Arriskuen ebaluazioak eta beste azterlan batzuk</i>	<i>500</i>
<i>Lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko gainkarga taldeen bilerak</i>	<i>8</i>

Laneko arriskuen prebentzioaren arloan gizarte eragileen parte hartzea eta lankidetzazustatzeko.

<i>Adierazleen deskribapena</i>	<i>Aurreikusitakoa</i>
<i>Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak eta batzordea bildu aurreko bilerak</i>	<i>8</i>

Langileen osasuna zaintzeko programak garatzeko, istripuetan jarduteko eta osasun arrazoiengatik birkokatze eta egokitzapenak egiteko.

<i>Adierazleen deskribapena</i>	<i>Aurreikusitakoa</i>
<i>Osasun azterketak Osasuna zaintzea</i>	<i>2.500</i>
<i>Beste osasun jarduketa batzuk: Kontsultak Egokitzapenak Birkokatzeak</i>	<i>3.500</i>
<i>Hurdunaldi arriskutsua baloratzeko eskaerei erantzutea</i>	<i>350</i>
<i>Arrisku biologikoko istripuei arreta ematea</i>	<i>300</i>
<i>Profesionalei arreta ematea kanpoko erasoen ondoren</i>	<i>600</i>

Osasunbidean ezarritako larrialdi planak eraginkor mantentzeko.

<i>Adierazleen deskribapena</i>	<i>Aurreikusitakoa</i>
<i>Larrialdietarako planak berrikustea</i>	<i>30</i>

Osasunbideko langileendako laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza eta informazio plana garatzeko.

<i>Adierazleen deskribapena</i>	<i>Aurreikusitakoa</i>
<i>Prestakuntzako ekintzak</i>	<i>150</i>

Laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudiak ezarritako lan baldintzen kontrola mantentzeko, Osasunbideko langileen osasuna babesteko.

<i>Adierazleen deskribapena</i>	<i>Aurreikusitakoa</i>
<i>Ingurumen neurketak</i>	<i>190</i>

Osasuna sustatzeko programak garatzeko.

<i>Adierazleen deskribapena</i>	<i>Aurreikusitakoa</i>
<i>Renueva-T eta KHUNE programak, taldeko osasuna sustatzeko</i>	<i>4</i>

Etengabe hobetzeko konpromisoa

Prebentzio zerbitzuak etengabe trebatzeko duen konpromisoa bermatzen da, bai eta ingurune seguru, inklusibo eta osasungarriak sustatzeko konpromisoa ere.

Ondorioa

Lan hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arriskuen prebentzio zerbitzuko talde teknikoari eta Segurtasun eta Osasun Batzordeko kide diren prebentzio ordezkariari esker da posible. Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan zerbitzuarekin.

– Eranskinak

Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana eta segurtasun eta osasun batzordeak onartutako prozedurak:

<https://gcsalud.admon-cfn Navarra.es/Salud04/SSCC/PRL/PlanPRL/Paginas/default.aspx>

Segurtasun eta osasun batzordeen aktak

<https://gcsalud.admon-cfn Navarra.es/Salud04/SSCC/EspaciosColaboracion/DPR/ComiteSeguridad.aspx>

– Kronograma (1. ERANSKINA)

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

11-24/PES-00453. Galdera, Muesko presa erromatarreko aztarnategia Kultur Intereseko Ondasun izendatzea ebatzi eta bukatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Muesko presa erromatarreko aztarnategia Kultur Intereseko Ondasun izendatzea ebatzi eta bukatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 8ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-24/PES-00453 galdera idatzia egin du Santa Criz aztarnategiko indusketa arkeologikoen inguruko informazioa eskatzeko. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoaren kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren martxoaren 18ko 63/2024 Ebazpenaren bitartez, espedientea hasi zen “Muesko

presa erromatarra” deritzon gune arkeologikoa interes kulturalerako ondasun deklaratzeko. Ebazpena interesduneri jakinarazi zitzaion eta 76. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2024ko apirilaren 16an. Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 306/2024 Ebazpenaren erantzuna ematen zaio “Muesko presa erromatarra” deritzon gune arkeologikoa interes kulturalerako ondasun deklaratzeko espedientea hasteko den Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren martxoaren 18ko 63/2024 Ebazpenaren aurka egindako alegazioari.

Ebazpen horretan adierazten denez, espedienteko interesdunek gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal dute, Kultura, Kirol eta Turismoaren kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean. Administrazio publikoek, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzen ahal dute, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, deusetan galarazi gabe horren aurretik Nafarroako Gobernuaren aurrean errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Lege-

aren 44. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

Oraindik ez dira amaitu ebazpen horretan lege ezarritako epeak; alabaina, behin epeok gainditu ondoren, espedientearekin jarraituko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00454. Galdera, unibertsitate-ikasketetarako beka eta laguntzetarako 2023ko aurrekontuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak unibertsitate-ikasketetarako beka eta laguntzetarako 2023ko aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Aipatu duzuen deialdian Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 4.586 eskaera jaso zituen beka unibertsitarioen deialdirako; gutxi gorabehera 500 edo 600 eskaera gutxiago aurreko urteetako batez bestekoaren aldean.

Hori dela-eta, pentsatzen dugu hori izaten ahal dela arrazoia, zeinagatik urte horretan aurrekontuko zati txikiagoa egikaritu baitzen gainerako urteen aldean.

Hala ere, unibertsitate-ikasketetarako beka eta laguntzak jasotzen dituen partidarako dirua unibertsitate-beken hurrengo deialdietan osorik egikaritu dadin, bizilekurako laguntzaren % 30 inguruko igogera ezarri genuen errenta-atalase guztietan, eta, horrenbestez, 340 eta 660 euro bitarteko onura gehigarria dago aurreko deialdien aldean, ikasturtea familiaren bizilekutik kanpo eman behar duten 650 bat ikasleren mesedetan.

Horrez gain, komunikazio kanpaina bat jarri zen martxan sare sozialen bidez hedapen handiagoa lortzeko eta laguntza hori eskuratzen ahal dutenek ezagutza handiagoa izateko horren eta epeen inguruan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00455. Galdera, Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa iraungitzen den datari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa iraungitzen den datari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00455 galdera idatzia egin du, Nafarroako Gobernuaren Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketaren mugaegunari buruz, barnean hartuta esleipenerako lizitazioak jasotzen zituen gehieneko luzapenak. Horri dagokionez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak jakinarazten du mugaeguna 2024ko abenduaren 31 dela.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00456. Galdera, Pirinioetako nekazaritza-elikagaietako aukerak direla-eta INTIAk 2021ean egindako azterlanaren ondorioak gogoan hartuta egin diren ekintzei edo hartu diren ekimenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Pirinioetako nekazaritza-elikagaietako aukerak direla-eta INTIAk 2021ean egindako azterlanaren ondorioak gogoan hartuta egin diren ekintzei edo hartu diren ekimenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Pirinioko nekazaritza- eta elikagai-alternati-

ba analisiaren ondorioetan oinarrituta egindako ekimenei buruz (2021-11/PES-00014). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

INTIAk 2021ean egindako Pirinioko nekazaritza- eta elikagai-alternatiben analisiaren ondorioetan oinarrituta honako ekintza eta ekimen hauetan aurreratu da:

– Hiltegia Garraldan

– Larretik, lehen sektorea bultzatzeko eta 0 KM kontsumoa sustatzeko Pirinioko elkarteak: tokiko produktuen salmenta, ordezkapenak eta garraioa.

– "Tejiendo la despensa" proiektua: Zangozako merindaderako elikagaien lurralde gobernantza eredu bat, tokiko elikagai sistemarako jasangarritasunerantz trantsizioa sustatu nahi duena baterako gobernantza sistema baten bitartez.

– Jardunaldiak Otsagabian, Erriberrin eta Ariben, 2024ko abuztuan antolatutako, jatetxeen, saltokien eta ekoizleen ingurukoak, nekazaritzaren eta elikagaien sektorean interesa dutenei, jatetxeei eta txikizkako saltokiei zuzenduak, bitartekari bakarrak baitira eta Zirkuitu Laburren Foru Legean anparatzen ahal direlako.

– Herri-lurren ordenantzetako lanak

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00457. Galdera, eskola-jantokirako bekei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak eskola-jantokirako bekei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24/PES-00457 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Jarraian erantzunen zaie galderari puntuz puntu:

Hezkuntza Departamentuak eskola-jantokirako beka dauzka. Beka horien funtzionamenduari buruzko informazioa jaso nahi dugu:

- Aldaketarik egin al da berriki beka horien funtzionamenduan?

Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola jantokiak arautzen dituen maiatzaren 29ko 58/2024 Foru Dekretu berria indarrean sartzearen ondorioz, ikasturte honetatik aurrera eskola jantokiko laguntza horien onuradun gisa sartu dira despopulazio-ko arrisku biziaren eta muturreko arriskuan dauden herrietan kokatutako ikastetxeetako ikasleak, herri horietan bizi badira, bat etorri horren inguruan toki administrazioaren eta despopulazioaren gaian eskumena duen zuzendaritza nagusiak ezarritakoarekin.

Horrez gainera, premia ekonomikoa duten ikasleak hartzen dira, jantokirako laguntza jasotzeko, ikastetxeko hezkuntza-orientazioak balorazioa egin eta halakotzat jasota geratzen direnak EDUCA aplikazioko ACNEAE ikasleen (Hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasleak) erroldako 9. ardatzean (zaugarritasun sozioekonomikoko egoera).

Aurrez, premia ekonomikoa duten ikasleak hartzen ziren kasuan kasuko oinarritzko gizarte zerbitzuak halakotzat baloratzen zituenak.

- Familiek non eskatu behar dituzte beka?

Ikastetxean.

- Oinarritzko zerbitzuek zer eginkizun dute prozesu horretan guztian?

Bat ere ez. Oinarritzko gizarte zerbitzuek jantokiko beka emateko esku hartzen dute beka horiek dituzten toki entitateetan.

- Zer dokumentazio aurkeztu behar dute?

Ikasleak erroldatzeko honako hauek hartzen dira kontuan:

- Errenta aitortpena, ikasleak Gizarte- eta hezkuntza-egoera zaugarriaren 9. ardatzean erroldatzeko adierazle objektibo gisa.

- Toki entitatearen baten jantoki beka izatea.

- Errenta bermatua jasotzea.

- Zuzendaritza taldearen erantzukizunpeko adierazpena, aurreko kausetako batentatik zaugarritasun egoera balioztatu ezin den salbuespeneko kasuetarako.

- Nork eta nola baloratzen du jaso den dokumentazioa eta zer irizpide baliatzen ditu zehazteko zer familiari ematen zaion beka?

Ikastetxeko idazkaritzak edo administrazioak aztertzen ditu errentak eta hezkuntza-orientazioko langileek erroldatzen dituzte ikasleak.

Jadanik azaldu denez, ikasleak 9. ardatzean erroldatzeko (lau kasuetako batean: familia errenta, errenta bermatua, beka izatea edo erantzukizunpeko adierazpena) honako hau hartuko da kontuan:

- Errenta aitortpena, ikasleak Gizarte- eta hezkuntza-egoera zaurgarriaren 9. ardatzean erroldatzeko adierazle objektibo gisa.

- Toki entitateren baten jantoki beka izatea.

- Errenta bermatua jasotzea.

- Zuzendaritza taldearen erantzukizunpeko adierazpena, aurreko kausetako batengatik zaurgarritasun egoera balioztatu ezin den salbuespenezko kasuetarako.

Iruñean, 2024ko azaroaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-24/PES-00458. Galdera, 2015eko urriaren 29an onetsi zen uren aprobe-txamendurako emakidaren ezaugarriak aldatzeko eskaria zertan den jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, 2015eko urriaren 29an onetsi zen uren aprobe-txamendurako emakidaren ezaugarriak aldatzeko eskaria zertan den jakiteko, 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du uren aprobe-txamendua egiteko 2015eko

urriaren 29an onetsitako emakidaren ezaugarriak aldatzeko eskaeraren egungo egoerari buruz (11-24/PES-00458). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Eskaera hori Ebroko Konfederazio Hidrografikoan izapide aurreratuko fasean dago. Jendaurrean jarri zen Estatuko Aldizkari Ofizialean 2024ko martxoaren 25ean eta ez du alegaziorik jaso. Halaber, baimena eman zen aldi baterako ura deribatze XXVI-Ega 4 (Cárcar) sektorea ureztatze.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00459. Galdera, bingo-aretoetako eta joko-areto edo -lokaletako ordutegia ezberdina izateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Emilio Jiménez Román jaunak bingo-aretoetako eta joko-areto edo -lokaletako ordutegia ezberdina izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Vox Navarra talde parlamentarioari atxikitako Nafarroako Gorteetako kide den foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00459). Hona hemen galdera hori:

Onesteke dago Nafarroako Joko eta Apustuen Erregelamendua, lokalak, makinak eta ordutegiak arautuko dituen zaurgarriak babesteko eta adizio-arriskua murrizteko.

Ixteko ordutegien tratamendua zergatik da ezberdina bingo-aretoetan eta joko-areto edo -lokaletan?

Eta hona hemen Nafarroako Gobernuaren Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuen Erregelamendua onesten duen forudekretuaren proiektuak honako hau dio 166. artikuluan:

166. artikulua. Funtzionamendu-ordutegiak.

Jokorako lokal edo instalazioen itxiera-ordutegi orokorra honako hau izanen da:

- a) Bingo-aretoak: 03:00.
- b) Joko-aretoak: 00:30.
- c) Kirol-apustuetaarako lokalak: 00:30.

Barne Zuzendaritza Nagusiko Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzu hau lanean aritu da goiburua harturik zaurgarrien diren kolektiboak babestea eta Administrazio gisa aginduzkoa duela segurtasun publikoa kaltetuta gerta daitekeen

egoerei aurre egitea. Hain da hori horrela, ezen 2021etik 2023ra bitartean joko-aretoen, bingo-aretoen eta apustu-denden inguruetan izandako salaketa, gertakari, arau-hauste administratibo eta delituei buruzko datuetan oinarrituz lan egin baita. Datu horiek guztiak jokoarekin bere orokortasunean zerikusia duten gertakarietara buruzkoak dira, eta ez da kontuan hartu pertsonen edo ondarearen aurkako bestelako delituri; alegia, datu horiek zorrozki mugatzen dira tankera horretako establezimenduetan izandako gertakarietara, hertsiki joko-jardunarekin zerikusia dutenetara.

Gainera, nabarmendu beharrekoa da datu horiek guztiak Foruzaingoak bildu dituela; hots, Nafarroako Gobernuaren mendeko polizia-kidego batek. Horrenbestez, azterturiko epean guztira 93 gertakari, salaketa eta gorabehera erregistratu dira Nafarroa osoan. Horietatik, % 50ek zerikusia dute Foruzaingoaren unitate espezializatuek egindako zaintza-jardurekin; % 26k, herritarren segurtasunaren alorreko prebentzio-kontrolarekin; eta % 13k, Herritarren Segurtasunaren Babeserako martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren urraketa astunekin –zehazki, horren 36. artikulua-renekin–. Gertakari horiek guztiak joko- eta apustu-establezimenduetan gertatu dira; ez da ezin gertatu bingo-establezimenduetan.

Azterturiko datuek erakusten dute ezen Iruña, Tafalla, Lizarra, Altsasu eta Tuterako polizia-etxeen jardun-eremuetako udalak direla gertakari gehien nozitu dituztenak (ez da gertakariak erregistratu ez Zangozako polizia-etxean, ez eta Elizondokoan ere). Zehazki, Iruñeko polizia-etxearen jardun-eremuan (Foruzaingoaren unitate zentralak), gertakariak Nafarroako hiriburuaren auzo guztietan erregistratu dira (Buztintxuri, Sanduzelai, Iturrama, Arrosadia...), bai eta beste udalerritatu batzuetan ere, hala nola Sarrigurenen (Eguesibar), Atarrabian, Burlatan eta Berriozarren.

Tuterako polizia-etxearen eragin-eremuan salaketak, gertakariak, arau-hausteak edo delituetak, Tuteran bertan jazotzeaz gain, halaber Cintruénigon, Corellan, Castejonon eta Cascanten ere agitu dira.

Tafallako polizia-etxeari dagokionez, herrian bertan gertaturikoez gain Milagroko datuak ere erregistratu ditu. Lizarrako polizia-etxeak herrian bertan erregistratu ditu, eta Altsasukoak ere, herrian bertan.

Berariazko araudiaren urraketengatiko zehapen-proposamenak aurkeztu dira joko-areto eta apustu-denden kasuan. Beste arrazoi batzuk izan dira jarduera-baimenik ez edukitzea, lokalaren barrenean erretzen uztea eta adingabeei nahiz debekudunei sartzen uztea.

Argi dago Jokoaren Legearen aldaketak arlo horretan egin beharreko bidea erakusten diola Administrazioari. Baldin eta zaugarrienak diren kolektiboen eskubideak babestu nahi badira, logikoa dirudi uler dadila joko-establezimenduen itxiera-ordutegiek murriztaileagoak izan behar dutela

2002an ezarritakoak baino. Bestetik, segurtasun publikoa bermatzeko polizia-ekintzek behartzen gaituzte araupean jartzera egunaren gainerako orduetan baino delitu-indize altuagoak dituzten ordutegiak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 10ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-24/PES-00460. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatze aldera Europako Inbertsio Bankuarekin egindako bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatze aldera Europako Inbertsio Bankuarekin egindako bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako ubidearen bigarren fasea finantzatzearen inguruan Europako Inbertsio Bankuarekin (EIB) izandako bilerei buruz (11-24/PES-00460). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

– 2024-02-26, EIBren Madrilgo bulegoak. Honako hauek izan ziren bertan: José Luis Arasti, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria; Julio Cifrián, Ekonomiako eta Next Generation funtsetako zuzendari nagusia; Ferrán Minguella, EIBren Espainiako Sektore Publikoaren unitateburua; Gladys Sevilla, EIBren credit officer.

– 2024-06-13, bideokonferentzia, Ekonomia eta Ogasun Departamentua. Honako hauek hartu zuten parte: Maite Domínguez, Aurrekontuen eta Ondarearen zuzendari nagusia; Julio Cifrián, Ekonomiako eta Next Generation funtsetako zuzendari nagusia; Joaquin Puig, Riegos de Navarra sozietatearen zuzendaria; Estela Fresan, INTIAren finantza arloa; Idoia Ederra, INTIAren plangintzako koordinatzailea; Francisco Úbeda, CANASaren finantza zuzendaria; Óscar Zunzarren, CANASaren administrazio arduraduna; Gladys Sevilla, EIBren credit officer; eta Josep Oriol Bellot, Aguas de Barcelona entitatearen kontseilaria.

– 2024-09-13, bideokonferentzia, Ekonomia eta Ogasun Departamentua. Honako hauek hartu zuten parte: Julio Cifrián, Ekonomiako eta Next Generation funtsetako zuzendari nagusia; Joaquin Puig, Riegos de Navarra sozietatearen zuzendaria; Estela Fresan, INTIAren finantza arloa; Idoia Ederra, INTIAren plangintzako koordinatzailea; Óscar Zunzarren, CANASaren administrazio arduraduna; Gladys Sevilla, EIBren credit officer; eta Josep Oriol Bellot, Aguas de Barcelona entitatearen kontseilaria.

– 2024-10-30, bideokonferentzia, Ekonomia eta Ogasun Departamentua. Honako hauek hartu zuten parte: Oscar Chivite, Lurralde Kohesiorako kontseilaria; Julio Cifrián, Ekonomiako eta Next Generation funtsetako zuzendari nagusia; Joaquin Puig, Riegos de Navarra sozietatearen zuzendaria; Estela Fresan, INTIAren finantza arloa; Idoia Ederra, INTIAren plangintzako koordinatzailea;

Francisco Úbeda, CANASaren finantza zuzendaria; Óscar Zunzarren, CANASaren administrazio arduraduna; Gladys Sevilla, EIBren credit officer; Josep Oriol Bellot, Aguas de Barcelona entitatearen kontseilaria; eta Alan Mondolfi, EIBren analista.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00461. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Ubidearen lehenbiziko faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00461 galdera idatzia egin du, Nafarroako ubidearen 1. Fasearen eremuko ureztalurrak eraldatzeko eta modernizatzeko eta lurzatiak biltzeko izapideari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1.- Lurzati berrantolamenduek eta ureztalurren eraldatze eta modernizatzeek zenbat hektarea hartu dituzte guztira?

1. fasean guztira 39.412 hektareatan egin dira berrantolamenduak; horietatik 20.847 hektarea

ureztalurrak eraldatzeko dira, eta 1.056 hektarea, berriz, modernizatzeko.

2.- Lurzati berrantolamenduko obrek zer kostu izan dute urteotan zehar (egitura berrian ustiatuegi zerbitzu emateko beharrezkoak diren landa-bideak, beharrezkotzat jotzen diren saneamenduak eta hustubideak; ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotzen diren neurri zuzentzaileetatik heldu direnak eta nekazaritza-azpiegituretako jarduketaren xede den lurraldearen ingurunea hobetzeko komenigarritzat jotzen diren bestelako obrak)?

Kostua honakoa izan da:

Urtea	Exekuzioa, BEZik gabe
2006	1.107.830,51
2008	6.932.934,99
2009	4.622.591,65
2010	13.965.582,46
2011	11.051.823,60

3. Zer kostu izan dute urteotan zehar sektoreko azpiegitura hidraulikoaren obrek?

Kostua honakoa izan da:

Urtea	Exekuzioa, BEZik gabe
2006	2.401.805,59
2008	884.644,89
2009	655.740,44
2010	4.117.855,16
2011	1.560.753,35

4.- Zer kostu izan dute urteotan zehar eremuko azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabek eduki zuten finantzaketa hori?

Lur onuradunen 4.639 jabe daude gaur egun.

Kostua honakoa izan da:

Urtea	Exekuzioa, BEZik gabe
2006	428.876,69
2008	771.455,04
2009	2.501.404,91
2010	5.530.009,54
2011	10.156.403,18

5.- Zer kostu izan dute urteotan zehar banaketako azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabek eduki zuten finantzaketa hori?

Lur onuradunen 4.639 jabe daude gaur egun.

Kostua honakoa izan da:

Urtea	Exekuzioa, BEZik gabe
2006	3.152.541,61
2008	13.371.151,87
2009	7.782.296,12
2010	24.730.352,80
2011	20.321.681,13

6.- Herri-lurretako barne-hobekuntzek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortu zuten finantzaketa hori?

2010	1.292.234,23
2011	2.023.087,72
2012	1.242.536,14
2013	558.080,00
2014	297.344,00
2015	192.028,84
2017-2021	540.665,27
2022	432.823,77
2023	580.921,29
2024	248.463,80

Hamasei toki entitate onuradun izan dira.

7.- Zer finantzaketa izan du urteotan zehar lurren sistematizazioak? Zenbat onuradun edo lurjabek eduki zuten finantzaketa hori?

Ez da halakorik gertatu.

8.- Herri-lurretako lurralde-hobekuntzek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar?

Zenbat toki-entitatek lortu zuten finantzaketa hori?

1. fasean urteotan zehar herri-lurretako lurralde-hobekuntzek honako finantzaketa hau izan dute:

Urtea	Finantzaketa
2011	202.486,28
2012	20.171,35

Lau toki entitate onuradun izan dira.

9.- Energia berriztagarriko instalazioek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar arestiko galderetan adierazitako azpiegiturretan energiaren kontsumoa murrizteko? Zenbat onuradun edo lurjabek eduki zuten finantzaketa hori?

Ez da halakorik gertatu.

10.- Presiopeko ura lurzatan banatzea xede duten interes pribatuko obrek –interesdunek zuzenean egin beharrekoek– zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar? Zenbat onuradun edo lurjabek eduki zuten finantzaketa hori?

2008. urtea eta aurrekoak	1.634.844,12 €	2018	9.519,16 €
2009	7.811.621,23 €	2019	13.290,36 €
2010	6.764.063,46 €	2020	270.768,41 €
2011	4.841.591,50 €	2021	18.267,72 €
2012	37.479,60 €	2022	52.877,23 €
2013	1.540.398,68 €	Onuradun kopurua 666 da.	
2014	0	Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.	
2015	282.483,11 €	Iruñean, 2024ko abenduaren 9an	
2016	32.024,77 €	Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena	
2017	31.862,41 €		

11-24/PES-00462. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko fasearen handitzearen azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Ubidearen lehenbiziko fasearen handitzearen azpiegituren finantzaketa-kostuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako ubidearen lehenengo fasea handitzeko azpiegituren finantzaketaren kostuei buruz (11-24/PES-00462). Hona Nafarroako Gobernu

Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1. Lurzati berrantolamenduek eta ureztalurren eraldatze eta modernizatzeak zenbat hektarea hartu dituzte guztira?

1. fasea handitzean guztira 19.827 hektareatan egin dira berrantolamenduak; horietatik 11.469 hektarea eraldatzeko dira, eta 2.787, berriz, modernizatze

2. Lurzati berrantolamenduko obrek zer kostu izan dute urteotan zehar (egitura berrian ustategiei zerbitzu emateko beharrezkoak diren landa-bideak, beharrezkotzat jotzen diren saneamenduak eta hustubideak; ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotzen diren neurri zuzentzaileetatik heldu direnak eta nekazaritza-azpiegituretako jarduketaren xede den lurraldearen ingurunea hobetzeko komenigarritzat jotzen diren bestelako obrak)?

Kostua honakoa izan da:

Urtea	Exekuzioa, BEZik gabe (eurotan)
2015	21.799,07
2016	2.053.389,86
2017	7.457.800,34
2021	1.865.481,46
2023	1.438.742,55

3. Zer kostu izan dute urteotan zehar sektoreko azpiegitura hidraulikoaren obrek?

Kostua honakoa izan da:

Urtea	Exekuzioa, BEZik gabe (eurotan)
2015	2.048.814,39
2016	4.261.219,41
2017	12.347.904,14
2021	4.445.595,89
2023	6.826.648,02

4. Zer kostu izan dute urteotan zehar eremuko azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabe edukitu zuten finantzaketa hori?

Kostua honakoa izan da:

Urtea	Exekuzioa, BEZik gabe (eurotan)
2015	307.583,97
2016	894.481,67
2017	4.411.847,56
2021	354.863,30
2023	1.998.604,39

Lur onuradunen 4.349 jabe daude gaur egun.

5. Zer kostu izan dute urteotan zehar banaketako azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabe edukitu zuten finantzaketa hori?

Kostua honakoa izan da:

Urtea	Exekuzioa, BEZik gabe (eurotan)
2015	12.060,73
2016	644.958,51
2017	12.657.919,90
2021	2.028.281,79
2023	3.174.479,83

Lur onuradunen 4.349 jabe daude gaur egun.

6. Herri-lurretako barne-banaketak zer finantzaketa eduki du urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortu zuten finantzaketa hori?

1. fasea handitu artean urteotan zehar herri-lurretako barne-banaketak honako finantzaketa hau izan du:

Urtea	Finantzaketa
2017-2021	742.330,52
2022	205.528,08
2023	188.094,12
2024	82.887,55

Zortzi toki entitate onuradun izan dira.

7. Zer finantzaketa eduki du urteotan zehar lurren sistematizazioak? Zenbat onuradun edo lurjabe edukitu zuten finantzaketa hori?

Administrazioak finantzaketaren % 85 hartu du bere gain, eta Arga 3 eta Arga 4 sektoreetako ureztatzaileek, berriz, % 15. Arga 5 sektorean, finantzaketaren % 70 administrazioaren kargura izan da, eta gainerako % 30 ureztatzaileen kargura.

Guztira, 571 onuradun izan dira.

8. Herri-lurretako lurralde-hobekuntzek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortu zuten finantzaketa hori?

Momentuz ez dago 1. fasearen handitzean zehar herri-lurretan egindako lurralde-hobekuntzei dagokien finantzaketaren onuradun izan den toki entitaterik.

9. Energia berriztagarriko instalazioek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar arestiko galderetan adierazitako azpiegiturretan energiaren kontsumoa murrizteko? Zenbat onuradun edo lurjabe edukitu zuten finantzaketa hori?

Ez da halakorik gertatu.

10. Presiopeko ura lurzatian banatzea xede duten interes pribatuko obrek –interesdunek zuzenean egin beharrekoek– zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

Nekazaritza Departamentuaren Sustapen Atalak emandako datuen arabera, nekazaritza interes pribatuko obrek urteotan zehar izan duten finantzaketa ez da bereizten 1. fasearen eta 1. fasearen handitzearen artean, eta baterako finantzaketa honako hau izan da:

Urtea	Finantzaketa eurotan
2008. urtea eta aurrekoak	11.600.132.42
2009	4.285.844.17
2010	3.201.221.60
2011	4.439.420.50
2013	1.540.398.68
2015	480.432.96
2016	999.310.63
2017	238.397.00
2018	163.283.94

2019	451.872.08
2020	
2021	159.139.39
2022	172.200.75

Honako hau da 1. fasearen handitzean nekazaritza interes pribatuko obrak izan dituzten azaleretako finantzaketa, urteen arabera:

Urtea	Finantzatutako hektareak
2015	848,18
2016	1.136.89
2017	245,93
2018	151,84
2019	564,30
2020	
2021	138,73
2022	124,22

Sustapen Atalak honako datu orokor hauek helarazi ditu 1. faseko eta 1. fasearen handitzeko nekazaritza interes pribatuko finantzaketari dagokionez:

	EXPEDIENTES 2009-2013	EXPEDIENTES 2008 Y ANTERIORES	EXPEDIENTES 2015-2022	TOTAL
NÚMERO EXPEDIENTES AYUDA RIEGO	779.00	282.00		1.061.00
TOTAL HECTÁREAS TRANSFORMADAS CON AYUDAS	9.673.46	5.633.45	3.447.17	18.754.08
SUPERFICIE MEDIA TRANSFORMADA CON AYUDAS	12.42	19.98		17.68
IMPORTE AYUDAS CERTIFICADA EN RIEGOS	13.466.884.95	11.600.132.42	2.664.636.75	27.731.654.12
INVERSIÓN AUXILIABLE RIEGO	34.920.288.12			
PORCENTAJE MEDIO AYUDAS	43.03			
IMPORTANTE:	Datos de los expedientes hasta el 2008 son las ayudas tramitadas desde la Sección de Regadíos			
	Los datos del año 2013 hasta 2022, son superficies y ayuda certificada			
	TOTALES DE HAS INSTALADAS Y AYUDA INCLUYE DESDE ANTES DEL 2008 HASTA 2022			

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00463. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Ubidearen bigarren faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

E.H. Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ubidearen bigarren faseko azpiegituren finantzazio-kostuei buruz (11-24/PES-00463). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

1. Lurzati berrantolamenduek eta ureztalurren eraldatze eta modernizatzeez zenbat hektarea hartuko dituzte gutzira?

Funtsean, modernizazio-lanak dira. Plangintzan 20.000 hektarea gordin baino gehiagorekin lan egiten da, eta lurzatiak bateratzeko prozesuen ondoren 19.000 hektarea ureztagarri garbi inguru geratuko dira.

2. Lurzati berrantolamenduko obrek zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar fase horretan (egitura berrian ustategiei zerbitzu emateko beharrezkoak diren landa-bideak, beharrezkotzat jotzen diren saneamenduak eta hustubideak; ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotzen diren neurri zuzentzaileetatik heldu direnak eta nekazaritza-azpiegituretako jarduketaren xede den lurraldearen ingurunea hobetzeko komenigarritzat jotzen diren bestelako obrak)?

Nafarroako Ubidearen 2. faseak (XI. sektoretik XXI. sektorera) hornitzen duen eremu ureztagarria osatzen duten ureztatze-sektoreetako oinarritzko proiektuak edo aurreproiektuak eta eremu ureztagarrien ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanak egiten hasi dira. Oinarritzko proiektuetan lortuko da kostuen aurreikuspena.

3. Zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar sektoreko azpiegitura hidraulikoaren obrek?

Nafarroako Ubidearen 2. faseak (XI. sektoretik XXI. sektorera) hornitzen duen eremu ureztagarria osatzen duten ureztatze-sektoreetako oinarritzko proiektuak edo aurreproiektuak eta eremu ureztagarrien ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanak egiten hasi dira. Oinarritzko proiektuetan lortuko da kostuen aurreikuspena.

4. Zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar eremuko azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabek eduki zuten finantzaketa hori?

Nafarroako Ubidearen 2. faseak (XI. sektoretik XXI. sektorera) hornitzen duen eremu ureztagarria osatzen duten ureztatze-sektoreetako oinarritzko proiektuak edo aurreproiektuak eta eremu ureztagarrien ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanak egiten hasi dira. Oinarritzko proiektuetan lortuko da kostuen aurreikuspena.

Kalkuluen arabera, 12.000 titular inguru iznago dira jarduketa hauen onuradunak.

5. Zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar banaketako azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabek eduki zuten finantzaketa hori?

Nafarroako Ubidearen 2. faseak (XI. sektoretik XXI. sektorera) hornitzen duen eremu ureztagarria osatzen duten ureztatze-sektoreetako oinarritzko proiektuak edo aurreproiektuak eta eremu ureztagarrien ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanak egiten hasi dira. Oinarritzko proiektuetan lortuko da kostuen aurreikuspena.

Kalkuluen arabera, 12.000 titular inguru iznago dira jarduketa hauen onuradunak.

6. Herri-lurretako barne-banaketak zer finantzaketa izanen du hamabost urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortuko dute finantzaketa hori?

Kostu horiek barne hartzen dituzten herri-lurren barne-banaketako proiektuak ez daude eginda. Aurreikuspenen arabera, hamar bat toki-erakundek jasoko dute laguntza (Cadreira, Tutera, Corella, Cintruénigo, Cascante, Murchante, Monteagudo, Tulebras, Barillas eta Ablitas).

7. Lurren sistematizazioak zer kostu izanen du hamabost urteotan zehar? Zenbat onuradun edo lurjabek edukiko dute finantzaketa hori?

Nafarroako ubidearen 2. faseko eremu ureztagarrian ez da lurren sistematizaziorik aurreikusten. Modernizazio-obrekin, ureztatze-sistema tasa eraginkorragoetara, digitaletara eta teknifikatuagoetara aldatzea aurreikusten da (magnitude-ordena % 50ean kalkulatzeko da aspertsio bidezko ureztapenarekin eta beste % 50ean tantakako ureztatze edo ureztatze lokalizatuarekin).

8. Herri-lurretako lurralde-hobekuntzek zer kostu izanen dute hamabost urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortuko dute finantzaketa hori?

Oraindik ez dakigu toki-erakundeek sustatu ahal izanen dituzten herri-lurretan egin daitezkeen hobekuntzen kostua. Aurreikuspenen arabera, hamar bat toki-erakundeek jasoko dute laguntza (Cadreira, Tuter, Corella, Cintruénigo, Cascante, Murchante, Monteagudo, Tulebras, Barillas eta Ablitas).

9. Energia berriztagarriko instalazioek zer finantzaketa edukiko dute hurrengo 15 urteotan zehar arestiko galderetan adierazitako azpiegituretan energiaren kontsumoa murrizteko? Zenbat onuradun edo lurjabek edukiko dute finantzaketa hori?

Nafarroako Ubidearen 2. faseak (XI. sektoretik XXI. sektorera) hornitzen duen eremu ureztagarria osatzen duten ureztatze-sektoreetako oinarrizko proiektuak edo aurreproiektuak eta eremu ureztagarrien ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanak egiten hasi dira. Oinarrizko proiektuetan lortuko da kostuen aurreikuspena.

Kalkuluen arabera, 9.500 titular inguruk jasoko dituzte instalazio horiek Nafarroako Ubidearen 2. faseko XV, XVI, XVII, XIX, XX eta XXI sektoreetan.

10. Presiopeko ura lurzatian banatzea xede duten interes pribatuko obrek –interesdunek zuzenean egin beharrekoek– zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar? Zenbat onuradun edo lurjabek edukiko dute finantzaketa hori?

Ez da ezagutzen lurren titularrek zuzenean egiten dituzten nekazaritza-interes pribatuko obren kostua. 12.000 titularrek jaso dezakete finantzaketa hori.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00464. Galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00464 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari dagokionez –oin-orrian azaltzen denez, "erreklamazioak, salaketak, kexak, eragozpenak eta iradokizunak biltzen ditu"– eta horien arteko aldeak ulertze aldera, zer definizio ematen diozue kategoriatan horietako bakoitzari?" Hona Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Erreklamazioa:

Pazienteak edo harekin harremana duen beste edozein pertsonak jasotako arretarekin nahiz Nafarroako Foru Komunitateko osasuneko sistema publikoaren prestazioekin agertzen duen desadostasuna, pertsonak berak edo behar bezala akreditatutako legezko ordezkariak idatziz adierazia.

Salaketa:

Nafarroako Foru Komunitatearen osasuneko sistema publikoak pertsona bati emandako arretarekin agertutako desadostasuna, bera ez den eta ordezkari baimenduaren izaera akreditatzen ez duen beste pertsona batek adierazia.

Kexa:

Pazienteak edo harekin harremana duen beste edozein pertsonak jasotako arretarekin nahiz Nafarroako Foru Komunitateko osasuneko sistema publikoaren prestazioekin agertzen duen desadostasuna, ahoz, zuzenean eta berariaz adierazia.

Eragozpena:

Pazienteak edo harekin harreman duen beste edozein pertsonak izapide bat egin dadin egiten duen eskaera, sistemak zeregin horretarako arduradun izendatua duen unitatearen edo zerbitzuaren behar ez bezalako funtzionamenduaren ondorioz sortua, eskatzaileak ahoz edo idatziz berariaz adierazten ez duenean kexa dela.

Iradozpena:

Pazienteak edo harekin harremana duen beste edozein pertsonak ematen duen jarraibidea, jasotako arretarekin nahiz Nafarroako Foru Komunitateko osasuneko sistema publikoaren prestazioekin lotua. Ahozkoa eta idatzizkoa izaten ahal da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00465. Galdera, Osasun Karpeta Pertsonaleko iradokizunen/erreklamazioen atalari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Osasun Karpeta Pertsonaleko iradokizunen/erreklamazioen atalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00465 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari dagokionez –oin-orrian azaltzen denez, "erreklamazioak, salaketak, kexak, eragozpenak eta iradokizunak biltzen ditu"– , zer dela-eta Osasun Karpeta Pertsonaletik "Iradokizunak/erreklamazioak" sartzean ez dago halako kategoriarik eta nola edo nondik irits daiteke horietara?" Hona Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Osasun Karpeta Pertsonalaren proiektuak helburutzat du espazio digital pertsonal bat sortzea, ingurune teknologiko seguru batean, eta herritarren eskura jartzea haien osasunaren inguruko informazioa eskuratzeko aukera izan dezaten. Halaber, aukera ematen du izapide elektroni-

koak egiteko eta komunikazio kanal segurua izateko osasuneko profesionalekin, egokituz jotako kasuetan.

Osasun Karpeta Pertsonalean erabiltzen diren hizkera eta terminoek herritarrekiko komunikazioa argia, zuzena eta erraza izan dadila nahi dute, herritarrei aukera emateko terminoak benetan ulertzeko. Kasu honetan, ez du zentzurik Osasun Karpeta Pertsonalean sartzea desadostasuna ahoz agertzeko den "Kexak" kategoria, eta "salaketak" eta "eragozpenak" kategorietako izenak ez dira hitz ulerterrazak; "salaketak" alderdi judizialekin daude lotuta gehienbat, eta "eragozpenak", berriz, ihardespenean eta oharrekin.

Alabaina, eta termino horien definizioetan oinarrituta, herritarrek osasun sistemarekin dituzten desadostasunak erregistratzeko programa informatikoan sartzen dira (SISNASAP – Nafarroako Osasun Informazioaren Sistema Pazientearen Arreta Zerbitzuetarako). Bertatik ateratzen da aginte taula, eta, hain zuzen ere, bertan sartuta daude helburutzat dutelako herritarrek planteatutako gaien inguruko informazioaren bilketa zorrotza eta homogeneoa egitea hobetzeko eremuak detektatzeko aldera; barneko erregistro programa da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00466. Galdera, 2023ko abenduko aginte-koadroko "Zentroz zentro hobetzeko arloak" atalari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak 2023ko abenduko aginte-koadroko "Zentroz zentro hobetzeko arloak" atalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00466 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "2023ko abenduko aginte-koadroko "Hobetzeko arloak zentroen arabera" 2023ko abenduan oinarritzko osasun-laguntzan metatutako erreklamazio kopurua agertzen da (3.775): horietako bakoitzaren kategoría (erreklamazioak, salaketak, kexak, eragozpenak eta iradokizunak) taulak azaldutako arrazoi bakoitzerako." Hona Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Galderari erantzuteko, kontsulta bat egin zen SISNASAPen inguruan (Nafarroako Osasun Informazioaren Sistema Pazientearen Arreta Zerbitzuetarako) 2024ko azaroaren 13an.

Aginte koadroko orri-oinean hauxe adierazten da bertan argitaratutako datuen inguruan: "... alda-keta txikiak izaten ahal dituzte. Handitzen ahal dira, txostena igorri ondoren jasotzen diren tarte horretako gaiak erregistratzen direlako eta murrizten ahal dira, bikoiztutzat jotzen diren gaiak ezabatzeko direlako".

2023ko abenduko aginte-koadroko "Hobetzeko arloak zentroen arabera" 2023ko abenduan oinarritzko osasun-laguntzan metatutako erreklamazio kopurua agertzen da (3.775): horietako bakoitzaren kategoría (erreklamazioak, salaketak, kexak, eragozpenak eta iradokizunak) taulak azaldutako arrazoi bakoitzerako:

Salaketa	2
Eragozpena	75
Kexa	1.456
Erreklamazioa	2.205
Iradokizunak	47
Guztira	3.785

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00467. Galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloen" motei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloen" motei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00467 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "O-NOZeko aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari dagokionez, zer "hobetzeko arlo" sartzen dira "prestazioak eskuratzea" atalaren barruan, zeintzuk "hitzorduak ematea" atalean eta

zeintzuk "itxaron-zerrenda-hitzordua berandutzea" atalean?" Hona Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Galderari erantzuteko, kontsulta bat egin zen SISNASAPen inguruan (Nafarroako Osasun Informazioaren Sistema Pazientearen Arreta Zerbitzuetarako) 2024ko azaroaren 13an.

Aginte koadroko orri-oinean hauxe adierazten da bertan argitaratutako datuen inguruan: "... aldeketa txikiak izaten ahal dituzte. Handitzen ahal dira, txostena igorri ondoren jasotzen diren tarte horretako gaiak erregistratzen direlako eta murrizten ahal dira, bikoiztutzat jotzen diren gaiak ezabazten direlako".

O-NOZeko aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari dagokionez, zer "hobetzeko arlo" sartzen dira "prestazioak eskuratzea" atalaren barruan, zeintzuk "hitzorduak ematea" atalean eta zeintzuk "itxaron-zerrenda-hitzordua berandutzea" atalean?

	Prestazioak eskuratzea	Hitzordua ematea	Itxaron zerrenda-hitzordua berandutzea
Salaketa	1		
Eragozpena			
Kexa	19	58	19
Erreklamazioa	149	178	430
Iradokizuna	4	7	
Guztira	173	243	449

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00468 Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarilaren 15eko 1/2019 Foru Legean jasotzen diren zerbitzu-kartak abian jartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren I txaso Soto Díaz de Cerio andreak Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarilaren 15eko 1/2019 Foru Legean jasotzen diren zerbitzu-kartak abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak idatzizko galdera egin du (11-24/PES-00468), honako hau jakiteko: "Zer balorazio egiten du kontseilariak Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko 1/2019 Foru Legean jasotako zerbitzu-gutunak abian jartzeari buruz?". Hona hemen Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lehenik eta behin, argitu behar da 2005. urteaz geroztik gure komunitatean zerbitzu-gutunak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuen gutunak arautzen dituen maiatzaren 9ko 72/2005 Foru Dekretu bidez arautu direla; ondoren, Lehendakariak, Justiziako eta Barneko kontseilariaren urriaren 11ko 19/2005 Foru Aginduak horien diseinua eta egitura ezarri zituen.

2022tik web esteka bitartez eskuratzen ahal dira culturanavarra.es/eu webgunean. Zerbitzu-gutunaren dokumentura sartzeko web estekak adierazten digu 502 bisita egin direla 2022ko martxotik. Kontuan hartuta 2023an orriaren erabilzaile kopurua 29.379 izan dela eta 4.000 lagun daudela harpidetuta albisteen buletinean, suposatzen ahal da herritarrek eremu horretan duten interesa ase egiten dela kanal aktiboaren bitartez, hala nola culturanavarra.es/eu webgunearen eta harpidedunek aldizka jasotzen duten buletinaren bitartez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00469. Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko lizitazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko lizitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00469). Hona Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

1.- Barneko Zuzendaritza Nagusiak egin al du Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko lizitazioa, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarriak ezarritako moduan?

Galdera erantzun den egunean ez da lizitazioa egin Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarriak ezarritako moduan.

2.- Oraindik ez bada lizitaziorik egin, zergatik eta zer epetan eginen da?

Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko esleipen prozedurak eskatu egiten du, beste edozein kontratuk bezala, ase nahi diren premia espezifikoaren aurretiko analisisa egitea, aukera ematen baitu, esate

baterako, kontratatu beharreko prestazioen irismena zehazteko, bai eta horien balorazio ekonomikoa egiteko ere.

Zeregin horiek amaitu bezain laster, esleitzeko prozedura gauzatuko da, Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean jasotako aukerei jarraikiz.

3.- Nafarroako Gobernuak uste al du beteko duela legez ezarria duen betebeharra, azterlan hori 2025eko martxoaren 14rako egina izatekoa, orduan beteko baita Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzeko ekainaren 6ko 8/2024 Foru Legean ezarritako 9 hilabeteko epea?

8/2005 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarriak jasotzen duenez, 2024ko bigarren sei-hilekoan lanpostuak baloratzeko azterlan bat jarriko da abian. Lan hori haste aldera galderetako bigarrenari emandako erantzunean deskribatutako ekintzak egin dira.

Azterlana amaitzeari dagokionez, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua lan egiten ari da aipatutako arauan jasotako epeak betetzeko.

4. Zergatik egin da lizitazio bat zerbitzu horretako lanpostu-zerrenda egiteko xedez?

Galdera parlamentario hau erantzun den egunean ez da inolako lizitaziorik egin lanpostuen zerrenda bat egiteko; alabaina, aintzat hartzen ari diren aukeretako bat da ondoren eginen den lanpostuen balorazio azterlanaren emaitza optimoa bermatzeko xedez.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 10ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-24/PES-00470. Galdera, Bruselako bulegoetako lanpostu batean euskara baloratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Bruselako bulegoetako lanpostu batean euskara baloratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 15ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak PES-470 galdera egin du jarduera Bulegoetan izanen duen lanpostu baterako euskararen balorazioari buruz. Hona bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

"Unibertsitateko titulazioa duen pertsona baten prestakuntza praktikorako beka, Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusian eta Nafarroako Gobernuaren Bruselako Bulegoan aritzeko" delakoaren deial-

dian ingelesa eta frantsesa, Europar Batasunean lan egiteko hizkuntzak, betekizun gisa ezarri ziren, egiteko zereginetako batzuk hizkuntza horietan egiten direlako. Gaztelania ere bada nahitaezko betekizuna, deialdiaren 4.2 puntuan ezartzen denez, Espainiako nazionalitatea ez dutenentzako.

Euskara merezimendu gisa baloratzen da, hizpide den bekaz gozatzen duenak jarduera partzialki gauzatuko baitu Iruñean, eta arreta presentziala, telefono bidezkoa nahiz digitala publiko orokorrari emateko zeregin argiak izanen ditu; horrez gainera, Bruselan eginen duen lanaren zati bat gure Komunitateko nafar gizon nahiz emakumeen eskaerak artatzea izanen da (presentzialak, telefono bidezkoak eta bitarteko digitaletatik). Gogoan izan behar dugu euskara Nafarroak berezko duen hizkuntza dela, nafarren % 15,1ek ezagutzen eta hitz egiten dutena (NASTAT, 2024), eta ehuneko hori % 25 da gazteen artean; haiei dago zuzenduta, alegia, prestakuntza beka.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

11-24/PES-00471. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetzaz hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, berritzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetzaz hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, berritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 22ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UP) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda

Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako ubidearen bigarren fasea egikaritzeko Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmena berritzeari buruz (11-24/PES-00471). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aurreikusten da Nafarroako ubidearen bigarren fasea egikaritzeko Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmena 2025. urtean berrituko dela.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betetz.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00472. Galdera, Zizur Nagusiko ikastetxeetarako proiektatutako sukaldeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Zizur Nagusiko ikastetxeetarako proiektatutako sukaldeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 22ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24/ PES-00472 informazio eskaera dela-eta, honako informazio hau ematen du Hezkuntzako kontseilariak:

Aurreikusten da sukalde bat in situ eraikitzeko obrak 2026. urtean egikaritzeko direla; hala ere, 2025ean aurreikusten da egikaritze proiektuak idatziko eta obrak kontratatzeko espedientea hasiko

direla. Obra sukalderako eraikin berri bat eraikitzean datza, eta zerbitzua emanen die hiru ikastetxeei.

300 eta 400 metro koadro arteko espazioa okupatuko da. Behin betiko kokapena zehaztu artean, sukaldea ikastetxe publikoen jolastokian kokatuko da. Aurreikusten da sukaldeak eraikitzearen ondoriozko afektazioa ikastetxeko jolastokirako minimoa izanen dela; izan ere, Zizur Nagusiko eskola esparrua Nafarroako Foru Komunitateko handienetakoa da, eta horrek asko errazten du nola proiektua idaztea hala obra egikaritzea.

In situ sukalde berria eraikitzeak ez du eragozten haur eskola handitzeko aukera, eta, edozelan ere, handitze horrek ez luke harengan eraginik izanen guztiz bereizita dauden espazioetan gauzatuko bailirateke.

Iruñean, 2024ko azaroaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-24/PES-00473. Galdera, ahozko galderak geroratzeko eta beste kontseilari bati esleitzeko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak ahozko galderak geroratzeko eta beste kontseilari bati esleitzeko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 22ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00473). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Aipatutako galdera atzeratzearen arrazoi nagusia izan zen kontseilari honek pertsonalki

erantzun nahi izan ziela gazte enpleguari buruzko galdera guztiei; izan ere, nahiz eta Eskubide Sozialetako kontseilaria izan gaian eskumena duena, Ganberan noizbait aurpegiratu zait adierazi izana Eskubide Sozialetako Departamentua dela eskuduna enpleguko gaiei dagokienez, eta Gobernuko lehendakariorde eta Gazteriako arduradun gisa dudaren rola inguruan argudiatu da.

Horiek horrela, nire iritziz, galdera atzeratzea zen egokiena, ez bainuen ikusten premiazko gaurkotasuneko inolako arrazoirik, behin eta berriz jasotzen baitut gai horren inguruko galdera. Alderdi horiek guztiak ez ziren agertzen EH Bilduko parlamentariaren galderan, eta, hortaz, kasu honetan, Eskubide Sozialetako kontseilariarengana jotzea erabaki nuen.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00474. Galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen helburuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen helburuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 22ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00474 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak ezartzen dituen helburuen inguruan. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Zer ekimen, proiektu eta kronograma abiarazi du edo abiarazi gogo du Nafarroako Gobernuak Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak ezartzen dituen helburuak betetze aldera?

Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea oso arau anbiziotsua da eta inoiz izan ez den arau garapena dauka aurreikusita, Gobernuko departamentu guztien ekintza hartzen duena barnean zeharka (Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak koordinatuta). Arauaren neurria eta konplexutasuna direla-eta, eta galderak Klima Aldaketaren eta Energia Trantsizioaren Legearen helburuak modu generikoan aipatzen dituzenez, erreferentzia eginen zaie haren xede eta helburuek, 1. artikularekin bat:

“Foru lege honen xedea da arau-, erakunde- eta tresna-esparru bat ezartzea, zehazteko zer ekarpen eginen dion Nafarroako Foru Komunitateak jasangarritasunaren aldeko eta klima-aldaketaren aurkako konpromisoari, trantsizioa egiten lagunduz karbono gutxiko eredu sozioekonomiko eta energia-arloko berri baterantz, oinarritzat efizientzia eta energia berriztagarriak izanen ditue-

na, halako moldez non bermatu eginen baita baliabide naturalen erabilera arrazoizkoa eta solidarioa, klimaren alorreko efektuetara moldatua”.

Manu horretatik ondorioztatzen da hauek direla helburu nagusiak:

- eredu sozioekonomiko eta energetiko berri bateranzko trantsizioa, karbono gutxiko ekonomia batekin, efizientzian eta energia berriztagarrietan oinarrituta,
- natura baliabideen erabilera arrazionala eta solidarioa bermatzea,
- eta klima eraginei egokitua.

Helburu horiek gauzatzeko helburu espezifiko-agoak daude jasota 1. artikuluko horretako 4. apartatuan. Helburu horiek zerrendatzen dira jarraian, Nafarroako Gobernuak horiek lortzeko dituen ekimen eta proiektu batzuekin, bai eta, kasua bada, bakoitza egikaritzeko epeak:

a) Ekintza klimatikoarekin eta trantsizio energetikoarekin lotutako politika sektorialak koordinatzea, haren plangintzan zehaztutako helburuak lortze aldera, betiere jasangarritasun energetikoaren eta klima aldaketarako egokitzapena politika publikoetan txertatuta.

Helburu hori betetzeko, Nafarroako Gobernuaren 2023ko otsailaren 15eko Erabaki bidez, Klima aldaketaren eta energia trantsizioaren departamentu-arte batzordea sortu zen, eta, Klima Aldaketaren eta Energia Trantsizioaren Legearen 7. artikulua araberaren arabera, zeregintzat dauka Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren askotariko departamentuen eta haien erakunde instrumentalen jarduketa koordinatzea energia trantsizioaren eta klima aldaketaren aurkako ekintzan.

Nafarroako Gobernuaren 2016ko apirilaren 27ko Erabaki bidez sortutako departamentu-arte batzordea ordeztu du beste departamentu-arte batzorde horrek. Aurrekoak Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu guztietako ordezkariak zituen, eta Nafarroako klima aldaketaren bide orria egiteko eta martxan jartzeko zeregin funtsezkoa; KLINA izan zuen izena, eta Nafarroako Gobernuak 2018ko urtarrilaren 24an onetsi zuen.

b) Berotegi-efektuko gasak moteltze eta murriztearen helburuetan laguntzea eta, era berean, Nafarroako Foru Komunitatean klima-aldaketarako moldaketa erraztea, bertako herritarren eta lurraldearen zaurgarritasuna murriztuz.

Berotegi-efektuko gasak arintzeari eta murrizteari dagokionez, 2030era begirako Nafarroako Energia Plana da tresna nagusia, KLINA onetsitako egun berean onetsia, eta eguneratzeko izapidea oso aurreratuta dago.

Klima aldaketara egokitzearen harira, jadanik adierazi denez, Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orria, KLINA izenekoa. KLINA-ren planteamenduak aintzat hartzen du Nafarroan ingurumen estrategia integrala eta zeharkakoa onesteko eta ezartzeko premia, helduko diena, halaber, Nafarroak klima aldaketari aurre egiteko hartutako konpromisoei, eta, beste batzuen artean, honako hauen nazioarteko helburuak hartuko dituen bere gain: Europar Batasunaren Estrategia, Parisko akordioa (COP21) eta NBERen Garapen Jasangarriko Helburuak. Horrez gainera, emisio gutxiko ekonomia bateranzko eta lurralde jasangarri eta erresiliente bateranzko trantsizioa sustatuko ditu.

Neurri aringarriak behar dira hori lortzeko, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko xedez, bai eta egokitzeko eta kliman espero diren eraginaren arabera doitzeko neurriak ere, aurreikusten ahal diren eraginak arintzeko; halaber, ingurunea egokitzeko eta zaurgarritasuna murrizteko gaitasuna areagotu behar da, Nafarroan errekonozituak izan diren jardunbide egokietan oinarrituta, nola energia berriztagarriak ekoizteari dagokionez hala ingurumen kudeaketako eta baliabideen ustiapeneko eta kontserbazio alderdietan.

Nazioarteko jarraibideei jarraikiz, arintzeko helburuei dagokionez, KLINA orriak helburutzat planteatzen du berotegi-efektuko gasen emisioak guztira % 45 murriztea 2030. urterako, 2005eko emisioen aldean, eta % 80 murriztea, berriz, 2050erako. Epe laburreko helburu gisa eusten zaio 2020. urterako % 20 murriztea. Sektore energetikoak arintzeko jarduketak bereizten dira – hertsiki lotuak Nafarroako 2030erako Energia Planari– sektore ez-energetikoak arintzeko beste batetik, batez ere lehen sektorea eta hondakinak, Landa Garapenerako Planarekin (LGP 2014-2020) eta Nafarroako Hondakinen Planarekin (PRN 2017-2027) lotutakoak.

KLINA-ren helburua da Nafarroa lurralde "erresilientea" izatea klima aldaketaren ondorioetarako. Hau da, sistema naturalak, sozialak eta ekonomikoak ahal den heinean egokitzea, ekosistemek aldaketei aurre egin diezaieten.

Nafarroako klima aldaketaren bide orri horrek klima aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko eremuak, jarduketa ildoak eta neurriak zehazten ditu. Zehazki, egokitzeari dagokionez, neurri horietako asko LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren bidez garatzen ari dira. Proiektu hori Europar Batasunaren LIFE programak onartutako lehen proiektu integratua da, klima aldaketara egokitzeko estrategia bat garatzeko. 15 milioi eurotik goitiko aurrekontua du, 2017an hasi zen eta 2025ean amaituko da.

c) Nafarroako Foru Komunitatea erreferentzia bihurtzea lurralde jasangarri gisa, arduratsua ingurumenarekiko, efizientea baliabideen erabileran, eta erresilientea klima-aldaketara moldatzearen arloan.

Nafarroak dudarik gabeko ospea eta ibilbidea ditu Europar energia berriztagarrien esparruan, eta, bat aipatze aldera, Europar Batasunak 2004an energia berriztagarrietako eskualde politika onenaren saria eman zion. Ibilbide horri esker, azken urteotan, energia berriztagarrien bidez ekoizten den elektrizitatea guztira kontsumitzen den elektrizitatearen % 90 baino gehiago izan da.

Erreferentziazko beste adibide bat aipatze aldera, ekainean Nafarroako Gobernuak sari bat jaso zuen, Navarra Zirkular aintzatesten duena klima aldaketaren aurkako Europako lurralde estrategia arrakastatsuenen artean. EURADAK eman zion saria, Garapen Agentzien Europako Elkartek.

Azkenik, aipatu behar da Nafarroako Gobernuak hainbat gonbidapen jasotzen dituela ingurumenaren alorreko ekitaldietan parte hartzeko, eta, zehazki, klima aldaketaren ingurukoetan. Horien artean nabarmendu behar da Nafarroako Gobernuak CONAMA 2024ko zenbait ekitalditan parte hartu duela berriki. Ingurumenaren Kongresu Nazionala da, eta Nafarroako Gobernuak parte hartzeko gonbita jaso zuen nola klima ekintzan toki entitateekin egindako lana azaltzeko hala uholde arriskua prebenitzeko egindako aurrerapekin erakusteko, klima aldaketara moldatzeko kasu zehatza den aldetik.

d) Ekoizpen sektoreak egokitzea eta lurralde plangintzan, jardueretan, azpiegituretan eta eraikitzen klima-aldaketarekiko erresilientziaren analisia gehitzea.

Aurrez aipatutako LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren ekintzak sei arloren bidez garatzen dira. eta horietako bat da, hain zuzen ere, lurralde plangintzaren eta azpiegituren ingurukoa. Arlo horretako lanaren helburuak dira Nafarroan eraikitako hiri-ingurunean klima aldaketara moldatzeko neu-

rri berriak definitzea, kontuan izatea klima aldaketaren eraginak paisaian eta lurralde plangintzan, eta, horrez gain, politika koordinatu bat definitzea azpiegitura publikoak egokitzeko. Zehazki, honako hauek dira garatutako ekintzak:

1. Paisaiaren eta klima aldaketaren gida tematikoa. Gidak lurraldeko paisaia kudeaketarako neurri eta orientabideak jasotzen ditu, bai eta eskualdeko plangintzan kontuan hartzeko elementuak ere.

2. Klima aldaketaren azterketa eta ingurune eraikia klima aldaketara egokitzeko proposamenak, arkitekturako eta hirigintzako gida bat sortze aldera, non definitzen baitiren egokitzapena lurralde plangintzan hainbat eskalatan txertatzeko mekanismoak.

3. Kontsumo energetikoak kudeatzeko eta erai-kin publikoak klima aldaketara egokitzeko plataforma.

4. Nafarroako ingurune eraikiak (landakoak eta hirikoak) egokitzeko kudeaketako eta jardunbide egokietako eredu aproposenen diagnostikoa. Klima aldaketara egokitzeko kudeaketa eredu berritzaileen bide orria.

5. Klima sailkapeneko mapa, jasotzen dituen bereziki zaurgarriak diren puntuak garraio azpiegiturretan eta haietan esku hartzeko plan bat: zoladurak, zubiak, drainatze obrak, lur obrak, tunel ahoak eta artelanak.

6. Ingurune eraikitako klima aldaketako agertoki azterketa, aukera ematen duena etorkizuneko hirigintzako plangintzetan eta proiektuetan ikasitako alderdiak sartzeko.

Horrez gain, honako ekintza pilotu hauek gauzatu dira:

1. Etxebizitza publikoa. Burlatan alokairuko etxebizitza publikoko eraikin bat klima aldaketara egokitzeko pilotua, isolamendu termikoan, iragazgaiztean eta aireztatze sisteman jardunez eta energia berriztagarriak sustatuz.

2. Komunitate energetikoak. Ekipamendu publikoa klima aldaketara egokitzeko pilotua komunitate energetikoetan, aukera ematen duena metodologia alderatzeko eta kopia dadila sustatzeko.

3. Hiri-inguruneen berrikuntza energetikoa, jarduketa erakusgarria Tuteran Klima aldaketara egokitzeko kudeaketa eredu berritzaileen bide orrian ezarritako metodologia alderatzeko.

4. Landa inguruneen berrikuntza energetikoa. Landa ingurune bateko ekintza erakusgarria da.

5. Jarduera Ekonomikoko Arlo Zaurgarrien berrikuntza energetikoa. Landa ingurune bateko ekintza erakusgarria.

e) Hezkuntza, ikerketa, garapena eta teknologia-transferentzia sustatzea eta klima-aldaketarekiko moldatze eta moteltzearen arloko ezagutza hedatzea.

Nafarroako Gobernuak heziketan eta klima aldaketa arintzearen eta hari egokitzearen inguruko ezagutza zabaltzeko egiten duen jardueraren adierazgarri, honako adibide hauek aipatu behar dira:

- Klima aldaketa arintzeko prestakuntza jardueri dagokienez, industriako eta energiako departamentu eskudunak hainbat ikastaro eta jardunaldi antolatu ditu efizientzia energetikoaren eta energia berriztagarrien inguruan. Esate baterako, ikastaro horietako azkena "Transition Manager" delakoaren ingurukoa izan da, LIFE Plan4CET proiektuaren esparruan. Ikastaro horrek trantsizio energetikoari heltzen dio ikuspegi integral eta diziplina anitzeko batetik, plan energetikoak ekintza eraginkor bihurtzen irakasteko, azpimarra jarrita datuen erabileran, tokiko eragileen parte-hartzean eta gobernuarteko lankidetzan.

- Aipatutako LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren esparruan hainbat zabalkunde ekintza egin dira, askotarikoak; batzuk sektore espezifikoetarako izan dira, hala nola landa lurra egokitzeko kudeaketaren alorreko proiektu pilotuen emaitzak zabaltzeko jardunaldiak, eta, beste batzuk, berriz, irekiagoak, hala nola Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Itunari atxikitako toki entitateak elkartzeko jardunaldiak. Guztira, 2017ko amaiera aldera proiektua martxan jarri zenetik, zabalkundeko 147 ekitaldi baino gehiago egin dira, eta, horrez gain, beste 202 ekitalditan hartu da parte.

Proiektuak berak webgunea dauka, lifenadapta.navarra.es, non haren emaitzak eskuragarri dauden

f) Halako mekanismoak ezartzea non informazio objektiboa eta ebaluagarria emanen baitute klima-aldaketarekin, haren denbora-bilakaerarekin eta haren inpaktuekin zerikusia duten alderdi guztiei buruz.

Aurrez aipatutako LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren arloetako beste bat da klima aldaketaren monitorizazioa. Arlo horretako lanaren helburuak dira klima aldaketak Nafarroan dituen eraginaren bilakaera erakustea adierazle bitartez, eta, horrela, egokitzeko eta arintzeko neurriak martxan jartzen laguntzea.

Klima aldaketak nafar gizartearen sektore guztiei eragiten die eta informazio kopuru izugarria dago eskuragarri. Datuak eskuratzea errazte aldera, hamabost eragin katetan egituratu dira. Eragin kate bakoitzak adierazleak ditu, eta lau helburu nagusi.

1. Klimaren bilakaera Nafarroan karakterizatzea
2. Klima aldaketaren eraginekiko zaurgarritasuna eta esposizioa karakterizatzea
3. Inpaktuak monitorizatzea
4. Egokitzeko neurriak aplikatzea

Informazio hori guztia atari honetan erakusten da: monitoring.lifenadapta.eu.

g) Sustatzea herritarrek eta eragile ekonomiko eta sozialek parte har dezaten klima-politiken prestatze- eta ebaluatze-lanetan.

Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orriak berak (KLINA) parte-hartze prozesu handia izan zuen onetsi baino lehen. 2016ko apirilaren 22a eta 2017ko abenduaren 1a bitarte honako hauek egin ziren:

- 24 saio eztabaidatzeko eta KLINA aurkezteko.
- Parte-hartze prozesua online.
- Komunikazio ekintzak: zinema, antzerkia, bideoak.

Parte-hartze prozesua bizia izan zen, aberatsa eta askotarikoa, eta ospe handiko zenbait adituk lagundu zuten. Eztabaida interesgarriak sortu zituzten hainbat gairen inguruan, hala nola klima aldaketaren aurkako tokiko eta eskualdeko estrategiak, hirigintza, mugikortasuna, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basoetako sektoreak, industria, biodibertsitatea, osasuna, ura, turismoa eta hiri eredia, energia eta tokiko alternatibak. Parte-hartzaileen kopuruak:

- 24 jardunaldi.
- 600 bertaratu.
- 528 proposamen.

Bestalde, KLINA-ren esparruan gauzatutako ekintzak laburbiltzen dituzten memoriak egin dira, eta hemen dauden eskuragarri: klina.navarra.es/pages/memoria.

Migrazioaren esparruan, 2030era begirako Nafarroako Energia Plana da tresna nagusia, eta parte-hartze prozesu luzea izan zuen ere bai. Hamalau parte-hartze saio egin ziren hainbat toki-

tan (Iruña, Irurtzun, Lizarra, Tutereta eta Tafalla) 2016ko iraila eta 2017ko uztaila bitarte.

Antzera, 2030era begirako Nafarroako Energia Plan horren eguneraketa, jadanik azaldu denez, izapidetze egoera aurreratuan dago, eta parte-hartzeko zazpi topaketa izan zituen 2022ko abenduan.

Azkenik, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Foru Legean jasotako parte-hartze organo bi garatu direla aipatu behar da ere bai, honako hauek:

- Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Foru Legearen 8. artikuluan jasota dago, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak sustatua eta hari atxikia, eta gizartearen parte-hartzea antolatzen du klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren alorretan. Arautuko duen foru dekretua izapidetze egoera aurreratuan dago.

- Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarra. Aipaturik Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Foru Legeko 15. artikuluan dago jasota. Jadanik dauden parte-hartzeko mekanismoak indartzeko tresna da, bai eta modu egituratuan bermatzeko ere herritarrek klima aldaketaren inguruko erabakiak hartzeko prozesuan duten parte-hartzea. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren maiatzaren 7ko 142E/2024 Foru Aginduaren bidez dago araututa. Horiez gain:

- Batzarra osatuko duten kideak eta laguntza teknikoa eta logistikoa hautatuko dituen talde bideratzailea kontratatu da.

- Batzarrari lan egiten lagunduko dion adituen taldea izendatu da, eta talde horrek zenbait lan bilera izan ditu.

- kanpaina bat jarri da abian nahi duenak aukera izan dezan Batzarreko kide izendatua izateko.

h) Energiaren demokratizazioa sustatzea, honakotzat ulerturik hori:

- Herritarrek kontsumitzaile eta ekoizle gisa energiarako irispidea izateko daukaten eskubidea, eta herritarrek sistemaren parte aktibo gisa duten erantzukizuna.

- Energiaren alorrean erabiltzaileek informazioa eta prestakuntza jasotzeko duten eskubidea, kontsumoa eta ekoizpena energia-politika jasangarri eta efizienteetara moldatze aldera.

– Energia-sistemak herritarrengan inpaktu positiboa izatea ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik.

Nafarroako Gobernuak bereziki aktiboa da gai horretan; izan ere, Nafarroa da komunitate energetikoei buruzko arau espezifiko bat onetsi duen lehen erkidegoa: 64/2022 Foru Agindua, urriaren 21ekoa, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak emana, Nafarroan energia komunitateak sustatzeko neurriak ezartzen dituena.

Ildo beretik, Nafarroako Gobernuak Europako hiru kongresu antolatu ditu komunitate energetikoen inguruan, 2021eko azaroan, 2023ko urtarrilean eta 2024ko urrian.

Horrez gain, industriako eta energiako esku-menak dituen departamentuak hainbat informazio jardunaldi eta hizketaldi antolatu ditu herritarrentzako, energiako fakturak ulertzearen, komunitate energetiko bat eraikitzearen eta antzeko beste gai batzuen inguruan.

i) Nafarroako gizartea eta ingurunea klima-baldintza berrien aurrean prestatzea, nazioartean gai horri buruz emaniko jarraibideekin eta konpromisoekin bat; eta, era berean, Nafarroako Foru Komunitateko pertsonen osasuna eta ekosistemak babestu daitezen lortzea, arreta berezia jarriz gizarte-sektore zaurgarriengan.

Aurrez aipatutako LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren arloetako beste bat osasuna da, helburutzat duena klima aldaketak gizakion osasunean dituen eraginak ezagutzea eta murriztea eta egoitzeko neurri berriak definitzea. Honako neurri hauek garatu dira, besteak beste:

1. Gehiegizko tenperaturak giza osasunean dituen eraginak prebenitzeko jarduketa plana, datu erregistroko eta zaintzako tresnak hobetzeko.

2. Klima aldaketaren ondoriozko lan-baldintza aldakorrak zaintzea. Temperatura altuen eraginpean egoten ahal diren langileak identifikatu dira, eta osasun arretei buruzko datuak bildu, lan eremuan beroagatiko arriskua minimizatzeko beharrezkoak diren prebentzio neurriak aplikatzeko.

3. Airearen kalitatearen zaintza eta osasunean dituen ondorioak ebaluatzeko tresnak hobetzea.

4. Klima aldaketaren ondorioz sortzen ari diren arriskuen zaintza hobetzea. Ekipamenduak eta analisi teknikak eta prozedurak garatzea elikagaitan, giza kontsumorako uretan eta bainatzeko uretan sortzen ari diren arriskuei buruzko ezagutzak ematen dituzte.

5. Giza gaixotasunen inbaditzaileak detektatzeko zaintza sistema. Gaixotasunak transmititzen dituzten espezie inbaditzaileen presentziaren zaintza areagotzea, hala nola eltxo tigre (Aedes albopictus), eta jarduketa protokoloak hobetzeak aukera ematen du goiz erantzuteko, detektatzen badira kontrolatu ahal izateko.

6. Polenaren konposizioaren eta klima aldaketaren ondoriozko polinizazio aldiaren aldaketaren zaintza hobetzea. Polenaren kontrola handitzeak bertako espezieen eta espezie exotikoen polinizazioari buruzko informazioa sortzen du osasuneko profesionalentzat eta herritarrentzat, eta alergia duten pertsonen egokitzapena errazten du.

Ekosistemak babesteari dagokionez, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak hainbat ekintza garatu ditu, horietako batzuk Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak sustatutako Ingurumena Bultzatzeko Planen esparruan, hala nola PIMA Ekosistemak, jada amaituta dagoena, eta PIMA Klima-babeslekuak, hasierako fasean dagoena.

j) Sustatzea herritarren, ekoizpen-sektoreen eta ekosistemen plangintza, erresilientzia eta moldaketa, klima-aldaketaren efektuen aurrean.

Aurreko apartatuetan azaldutako guztiak erakusten du Nafarroako Gobernuak zer lan egin duen sustatzeko herritarren, ekoizpen sektoreen eta ekosistemen plangintza, erresilientzia eta moldaketa, klima aldaketaren efektuen aurrean.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 13an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00475. Galdera, Bixente Nazabal Sunsundegui enpresako kontseilari hautatu izanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Bixente Nazabal Sunsundegui enpresako kontseilari hautatu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 22ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Bixente Nazabal Sunsundegui enpresako kontseilari hautatzeari buruz (11-24/PES-00475). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak ematen duen informazioa:

Jasota al dago Sodenak Sunsundegui enpresako administrazio-kontseiluan dituen ordezkariak eragozpenen bat aurkeztu izana Bixente Nazabal kontseilari hautatzeari buruz?

Kapital Sozietateen Legeak 212. artikuluan ezartzen duenez, administratzaileak –hau da, administrazio-kontseiluko kideak– pertsona fisikoak edo juridikoak izaten ahalko dira, eta, horrez gainera, salbu eta estatutuek kontrakoa jasotzen badute, ez da eskatuko bazkide izatea administratzaile izendatua izateko.

Hala ere, lege testuak berak mugatu egiten du nolabait 212. artikulua orokortasuna, eta zenbait galarazpen ezartzen ditu. 213. artikulua dago jsota nortzuk ezin daitezkeen izan administratzaileak. Galarazpenak hauek dira:

1. Ezin dira administratzaile izan adingabe emantzipatu gabeak; judizialki gaitasunik ez dutenak; Konkurtso Legearen arabera ezgaituriko pertsonak, harik eta konkurtso kalifikazio-epaian finkaturiko ezgaitasun-aldia amaitu arte, eta askatasunaren, ondarearen zein ordena sozioekono-

mikoaren, segurtasun kolektiboaren eta Justizia Administrazioaren kontrako delituengatik edo edozein eratako faltsutzerengatik kondenatuak, ez eta beren karguagatik merkataritzan jardun ezin dutenak ere.

2. Ezin izango dira administratzaile izan, orobat, administrazio publikoaren zerbitzuko funtzionarioak, baldin eta dagokion sozietateari berezkoak zaizkion jarduerekin zerikusia duten funtzioak badituzte, ez eta epaileak edo magistratuak eta legezko bateraezintasun bat duten gaineko pertsonak ere.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Europar Batasuneko beste estatu kide batean desgaituztaren ondorioetarako indarrean dagoen edozein desgaituztza edo informazio egoki hartu ahal izango da kontuan.

Garrantzitsua da azpimarratzea administratzaileak izendatzeko eskumena bazkideen batzarrari dagokiola (KSLren 214. artikulua), eta administratzaileak izendatzeak onartzen den unetik dituela ondorioak. Gainera, administratzaileen izendapena Merkataritza Erregistroan inskribatzeko betebeharrak ezartzen da, izendapena onartu eta hurrengo hamar egunen barnean.

Merkataritza Erregistroari dagokio egiaztatzea administratzaile izendatuek bete egiten dituztela baliozko izendapenerako eta geroko inskripziarako eskatzen diren legezko betekizunak, eta arlo horretako arauak betetzen dela zaindu beharko du.

Sunsundegui enpresaren Kontseiluko administratzaile izendatutako pertsona guztiek Kapital Sozietateen Legean ezarritako legezko baldintzak betetzen dituzte, ez baita arauak ezarritako debekuetako bat ere gertatzen. Horregatik, administratzaileen izendapenari ez zitzaion inolako eragozpenik jarri, guztiek betetzen baitzituzten administratzaile izendatzeko legezko baldintzak, eta, beraz, izendapena zuzenbidearen araberakoa zen. Horren frogak da Merkataritza Erregistroak, izendapen berrien dokumentazioa berrikusi eta egiaztatu ondoren, eta administratzaile gisa proposatutakoren baten izendapena eragozten zuen inolako debekurik ikusi ez zuenez, administrazio kontseilu berria baliozkotu zuela eta behar bezala inskribatu zuela.

Administratzaile izateko eskatzen diren legezko baldintzak betetzeaz gain, berriro adierazi behar dugu enpresako bazkideen batzarrak izendatzen dituela administratzaileak. Kontu hori oso esanguratsua da, bazkideek izendatuko baitituzte administratzaileak, eta, kasu zehatz honetan, manu horrek garrantzi handiagoa izaten du; hain zuzen ere, enpresako langileek akzioen % 40 inguru dituzte, eta horrek hautagaiak proposatzeko eta, jakina, Administrazio Kontseiluko ordezkari izendatzeko legitimazioa ematen die.

Argi dago, beraz, administrazio kontseiluko kide guztien izendapena bat datorrela legeak eskatzen dituen betekizunekin, eta baliozkoak direla enpresaren akziodunek kide horiek proposatzeko eta izendatzeko duten eskubidea betetzeko. Hori dela-eta, alderdi honek ondorioztatzen du izendapen guztiak Kapital Sozietateen Legean ezarritakoa betez egin zirela eta, akziodunen ehunekoan araber, bazkideek administrazio kontseiluan ordezkariak proposatu eta izendatzeko duten eskubidea eta Merkataritza Erregistroak Administrazio Kon-

teiluaren inskripzioa onartuz emandako baliozko-tasuna errespetatuz, dagozkion lege arauetako errespetuaren frogagisa.

Jasota al dago Bixente Nazabalek Sunsundeguiko administrazio-kontseiluko kidearena baino garrantzitsuagoa den bestelako izendapenen bat –kontseilari delegatua, lehendakariordea...– lortu izana?

Ez.

Baiezkoan, noiz eta zer prozeduraren bidez egin zen?

Ez dago erantzuterik. Ikus aurreko galderari emandako erantzuna.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 13an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00476. Galdera, Iruñean Maristen etxadian babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak Iruñean Maristen etxadian babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 22ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00476). Hona hemen Etxebizitzako, Gazterriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Iruñeko Maristen etxadiko etxebizitza babes-tuen sustatzailea ez da ez Nafarroako Gobernua ez NASUVINSA. Etxadi horretako etxebizitza babes-tuen bi sustapenen sustatzailea Residencial Maristas II Sociedad Cooperativa da (IFZ: F71438063) eta egoitza soziala Iruñeko Francisco Bergamín kaleko 39an dauka.

Ildo horretatik, menturazkoa eta zuhurtziagabea litzateke Nafarroako Gobernuak erantzunik ematea beste batzuen jarduketekin eta erabakiekin lotutako gaien inguruan; izan ere, hirugarren horiek dira kasua bada eskatutako azalpenak eman behar dituztenak, haiek baitute informazio eta ezagutza guztia.

Bestalde, adierazi behar da ez dela inolako akatsik antzeman etxebizitzak esleitzeko prozesuan, eta zuhurtziaz jarraitu da indarrean dagoen araudiak finkatzen duena.

Etxebizitzak behin-behinean kalifikatu ziren 2023ko maiatzaren 24an, eta une horretatik aurrera sustatzen ahal ziren obrak hasteko izapideak;

hala ere, oraindik ez zaie ekin. Edozelan ere, azaldu denarekin bat, ez da Nafarroako Gobernuaren zeregina adierazpenik egitea pertsona juridiko pribatu batek sustatu dituen etxebizitzak eraikitzen hasteko, amaitzeko eta entregatzeko aurreikuspenaren inguruan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00477. Galdera, ETBren emanaldiak zaintzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak ETBren emanaldiak zaintzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 22ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00477); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Nola zaintzen du Nafarroako Gobernuak ea ETBren emanaldi guztiek errespetatzen dituzten Nafarroaren errealitate politikoa, soziala eta instituzionala eta Nafarroaren ikurrak eta nortasuna?

- 2016tik gaurko egunera arte horren gaineko kexarik izan al da? Baiezkoan, eman hori jasotzen duen dokumentazioa, halakorik bada.

Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuei buruzko urtarrilaren 25eko

5/2012 Foru Dekretuaren 33. artikulua arabera eta lehendakaritza eta berdintasun departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 238/2023 Foru Dekretuaren 45.g) artikulua arabera, parlamentariak galderan hizpide duen ikuskatzeko zeregina une honetan Komunikazioaren eta Proiektzio Institutuzionalaren Zuzendaritza Nagusiko Komunikazio Zerbitzuak dauka esleituta. Zeregin hori gauzatzen du Nafarroako Gobernuari aurkezten zaizkion kexak eta salaketak artatuz, eta horretarako kanal espezifiko bat dago, nafarroa.eus atarian jasotakoa:

Ikusleak Defendatzeko Bulegoa (Oficina de Defensa de la Audiencia) (<https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/Envio-de-consultas-quejas-y-sugerencias-a-la-Oficina-de-defensa-de-la-audiencia>).

Ez da kexa nahiz salaketarik erregistratu ETBren Nafarroako Foru Komunitateko atzemateari legezko babesa eman dioten hitzarmenak indarrean sartu zirenetik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00478. Galdera, Osasun Departamentuaren azpiegituren eta obren egoerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Osasun Departamentuaren azpiegituren eta obren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 22ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parla-

mentarioari atxikitako Nafarroako Parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan (11-24/PES-00478) aurrekontu-partidak dituzten azpiegitura eta obrei buruz egindako galderari dagokionez, honako hau jakinarazi du:

Zein da, gaur egun, 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan partidak dituzten Osasun Departamentuaren azpiegituren eta obren egoera?

Eranskin gisa, taula bat erantsi da, 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako inbertsio-partiden aurrekontu-betearazpenarekin.

Hona hemen Osasunbidearen azpiegitura eta obra nagusien egoera:

INBERTSIO ETA OBRA NAGUSIAK (Nafarroako)	Egoera
NOUko pediatriako ZIU berriaren obrak burutzeko proiektua idaztea eta, hala badagokio, zuzendaritza fakultatiboa eta segurtasun eta osasuna koordinatzea	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 4ko 729/2024 Ebazpenaren bidez esleitu zen, eta aurrerakina 2024an ordaintzea aurreikusi zen.
Atarrabiako osasun-etxea eraikitzeko obrak	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 24ko 677/2024 Ebazpenaren bidez esleitu zen, eta obrak 2024ko abuztuan hasi ziren.
NOUko B zentroko bloke orokorreko loaren unitatea barrutik berritzeko obrak	Proiektua ordaindua eta gastua baimenduta, kontratazio-espeditentea onartua eta obrak esleitzeko prozedura irekitzea xedatua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 28ko 1470/2024 Ebazpenaren bidez.
Lizarrako GOOn Larrialdietako Unitatea eraberritzeko eta handitzeko eta ZIU berria eraikitzeko obrak	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 1eko 711/2024 Ebazpenaren bidez esleitu zen, eta obrak 2024ko urrian hasi ziren.
Tuterako RSOko Farmazia Eremu berria ezartzeko obrak	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 6ko 444/2024 Ebazpenaren bidez esleitu zen, eta obrak 2024ko ekainean hasi ziren.
Oliveto kondearen 6. eta 7. solairuak eraberritzeko obrak	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 19ko 1455/2023 Ebazpenaren bidez esleitu zen, eta obrak 2024n hasi ziren.
NOUko hemodinamikako 2. eta 3. geletako ekipamendua	2024an instalatu eta ordaintzea aurreikusi da
Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Rx aretoen ekipamendua	2024an instalatu eta ordaintzea aurreikusi da

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa

Iruñean, 2024ko abenduaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

**ERANSKINA - 2024ko NAFARROAKO AURREKONTU
OROKORREN INBERTSIOEN PARTIDAK**

Or. Kudeatzailea/Kapit./Aurrekontuko partida	Bateratua	Obligazioa
GUZTIRA	47.831.245,59	31.255.229,9
52000 Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuz. kud.	120.010,00	97.590,62
6 Inbertsio errealak	120.010,00	97.590,62
540000 52000 6020 311100 Obra txikiak	90.000,00	69.358,99
540000 52000 6059 311100 Bestelako altzariak eta ekipoak	30.000,00	28.231,63
540000 52000 6089 311100 Bestelako ibilgetu materiala	10,00	-
52010 Osasunerako Azpizistemak eta Teknologia	19.475.412,01	16.659.649,4
6 Inbertsio errealak	19.475.412,01	16.659.649,4
540007 52010 6031 311100 Bestelako ibilgetu inmateriala	100.000,00	66.961,91
540007 52010 6031 311102 NASERTIC-i egindako enkargua. Telekomunikazio-, ahots-	611.901,87	474.698,13
540007 52010 6031 311104 MRR Lehen Mailako Arretako Eraldaketa Digitaleko Plana	302.500,00	108.451,32
540007 52010 6059 311100 Telefonía- eta telekomunikazio-sistemak	35.007,69	46.764,92
540007 52010 6059 311102 NASERTIC-i egindako enkargua. Telefonía- eta	177.500,00	52.803,81
540007 52010 6059 311103 MRR Lehen Mailako Arretako Eraldaketa Digitaleko Plana	449.086,31	378.123,21
540007 52010 6060 311100 Informazio prozesuetarako ekipamenduak	2.423.624,73	1.832.261,60
540007 52010 6060 311103 MRR Lehen Mailako Arretako Eraldaketa Digitaleko Plana	1.047.787,40	926.632,44
540007 52010 6060 311104 Farmaindustria TIC ECOFIN - Ekipoak	57.275,00	30.584,50
540007 52010 6060 311105 MRR Osasuneko Datuen Esparru Nazionala	759.050,00	-
540007-52010-6094-311100 Aplikazio informatiko estrategikoak	9.112.000,00	8.724.033,03
540007 52010 6094 311102 TRACASA Instrumental-i egindako enkargua. Laguntza	2.972.054,00	2.979.706,69
540007 52010 6094 311103 HaDEA aplikazio informatikoak	24.444,66	-
540007 52010 6094 311106 Aplikazio informatikoak	1.170.165,00	926.692,50
540007 52010 6094 311107 MRR Lehen Mailako Arretako Eraldaketa Digitaleko Plana	121.000,00	-
540007 52010 6094 311109 SIVAIN Txertaketak	111.965,35	111.935,35
540007 52010 6094 311110 Farmaindustria TIC ECOFIN aplikazio informatikoak	10,00	-
540007 52010 6094 311111 MRR Arreta digital pertsonalizatua TRACASA Instrumental-i	10,00	-
540007 52010 6094 311112 MRR Arreta digital pertsonalizatua aplikazio informatikoak	10,00	-
540007 52010 6094 311113 MRR Informazio genomikoa	10,00	-
540007 52010 6094 311114 MRR UNICAS sarea	10,00	-
52200 Nafarroako Ospitale Unibertsitarioaren kudeatzailetza	15.267.505,00	5.848.250,79
6 Inbertsio errealak	15.267.505,00	5.848.250,79
543000 52200 6020 312800 Obrak, instalazio-hobekuntzak eta segurtasun-plana	1.274.000,00	594.138,67
543000 52200 6020 312802 Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	100.000,00	11.717,16
543000 52200 6020 312803 Energia-efizientziarako jarduketak	150.000,00	102.232,51
543000 52200 6020 312804 Ospitale Unibertsitarioa antolatzea eta birmoldatzeko	2.781.896,00	1.551.923,18
543000 52200 6020 312809 Ubarmin-NOU estalkia berritzea	-	83.320,27
543000 52200 6020 312811 NOUko ZIU pediatrikoko obrak	-	101.640,00
543000 52200 6020 312812 (E) Haurren eta gazteen ospitalizazio psikiatrikoa handitzea	260.000,00	237.160,00
543000 52200 6057 312800 Ekipamendu medikoa	9.443.609,00	2.235.764,83
543000 52200 6057 312802 Kirurgia-tresnak	348.000,00	248.836,29
543000 52200 6059 312800 Ekipamendu Nagusia	800.000,00	626.411,55
543000 52200 6059 312803 Ekipamendu orokorra: arriskuen prebentziorako jarduerak	70.000,00	36.113,60
543000 52200 6059 312804 (E) Ekipamendu orokorra eta beste jarduketa batzuk	40.000,00	18.992,73
52214 Nafarroako Odol eta Ehun Bankua (NOEB)	100.000,00	59.813,12
6 Inbertsio errealak	100.000,00	59.813,12
543004 52214 6020 312800 Instalazioetako obrak eta hobetzea	33.000,00	32.989,19
543004 52214 6059 312800 Ekipamendu Nagusia	67.000,00	26.823,93
52300 Oinarrizko laguntzaren kudeatzailetza	5.463.214,55	4.328.727,73
6 Inbertsio errealak	5.463.214,55	4.328.727,73
547001 52300 6020 312803 Energia-efizientziarako jarduketak	250.000,00	201.605,61
547001 52300 6020 312804 Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	40.000,00	51.998,59
547001 52300 6020 312805 Osasun etxeak hobetzeko planeko inbertsioak	410.000,00	365.604,25
547001 52300 6020 312821 Obrak osasun-etxeetan eta oinarrizko osasun laguntzako	3.156.014,55	2.661.414,61
547001 52300 6020 312819 Obrak eta eraberritzeak Altsasuko osasun-etxean	80.000,00	48.331,26
547001 52300 6057 312800 Osasun-etxeetako eta kontsultategietako ekipamendua	1.020.000,00	791.700,85
547001 52300 6057 312804 MRR Lehen Mailako Arretako Eraldaketa Digitaleko Plana	387.200,00	-
547001 52300 6059 312802 Ekipamendu Nagusia	120.000,00	208.072,56
52400 Tuterako Osasun Barrutiko Kudeatzailetza	3.738.792,03	2.296.582,57

6 Inbertsio errealak	3.738.792,03	2.296.582,57
545000 52400 6020 312800 Obrak, instalazio-hobekuntzak eta segurtasun-plana	831.000,00	653.903,10
545000 52400 6020 312803 Energia-efizientziarako jarduketak	20.000,00	2.976,60
545000 52400 6020 312804 Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	20.000,00	-
545000 52400 6020 312812 Tuterako farmazia zerbitzua	883.538,03	446.748,08
545000 52400 6057 312800 Ekipamendu medikoak	1.404.254,00	854.269,70
545000 52400 6057 312803 Kirurgia-tresnak	10.000,00	3.903,50
545000 52400 6057 312807 (E) Reina Sofia Ospitalerako arnasgailuak erostea	100.000,00	10.000,00
545000 52400 6059 312802 Bestelako altzariak eta ekipoak	200.000,00	204.706,76
545000 52400 6059 312806 Ospitaleko ohe elektrikoak eta ohatila elektrikoak erostea	270.000,00	120.074,83
52420 OOLaren eta Lagun. Jarrait. zuzendarior.	635.000,00	208.130,44
6 Inbertsio errealak	635.000,00	208.130,44
545001 52420 6020 312802 Osasun-etxeetako eta kontsultategietako inbertsioak	525.000,00	127.244,99
545001 52420 6057 312800 Osasun-etxeetako eta kontsultategietako osasun-	60.000,00	58.470,78
545001 52420 6059 312800 Osasun-etxeetako eta kontsultategietako ekipamendu	25.000,00	21.026,01
545001 52420 6059 312802 Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	25.000,00	1.388,66
52500 Lizarrako Osasun Barrutiko kudeatzailetza	2.224.802,00	1.013.539,46
6 Inbertsio errealak	2.224.802,00	1.013.539,46
546000 52500 6020 312800 Obrak, instalazio-hobekuntzak eta segurtasun-plana	30.000,00	88.740,96
546000 52500 6020 312802 Eraberritze lanak.	190.000,00	62.497,07
546000 52500 6020 312804 Lan-arriskuen prebentziorako jarduketa osasun barrutian.	6.000,00	-
546000-52500-6020-312807 Obra Lizarrako García Orcoyen ospitalean	589.000,00	225.611,40
546000 52500 6057 312800 Ekipamendu medikoak	678.802,00	356.237,51
546000 52500 6057 312803 Kirurgia-tresnak	11.000,00	3.778,07
546000 52500 6057 312805 Lizarrako García Orcoyen ospitalerako teleaginte berria	240.000,00	-
546000 52500 6059 312800 Ekipamendu Orokorra	400.000,00	126.541,36
546001 52500 6020 312200 Obrak osasun-etxeetan	20.000,00	73.975,16
546001 52500 6020 312202 Osasun-etxeak hobetzeko plana	30.000,00	16.272,09
546001 52500 6057 312202 Landako arreta hobetzea	30.000,00	59.885,84
52520 Lizarrako OILaren eta Laguntzaren Jarraitutasunerako zuzendarior.	10.000,00	38.660,76
6 Inbertsio errealak	10.000,00	38.660,76
546001 52520 6057 312200 Osasun-etxeetako eta kontsultategietako osasun-	-	17.452,25
546001 52520 6059 312800 Ekipamendu Nagusia	10.000,00	21.208,51
52700 Osasun Mentaleko Kudeatzailetza	796.500,00	704.285,03
6 Inbertsio errealak	796.500,00	704.285,03
541004 52700 6020 312800 Obrak, instalazio-hobekuntzak eta segurtasun-plana	671.500,00	586.318,77
541004 52700 6057 312800 Ekipamendu medikoa	45.000,00	39.311,52
541004 52700 6059 312800 Bestelako altzariak eta ekipoak	80.000,00	78.654,74
52831 Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerb.	10,00	-
6 Inbertsio errealak	10,00	-
540005 52831 6057 313100 Ekipamendu medikoak. Medikamentuen erabilera	10,00	-

